

Borrokalari ohien desarme, desmobilizazio eta gizarteratze prozesuak genero ikuspegitik

iker zirion landaluze

Lan-Koadernoak / Cuadernos de Trabajo • Hegoa, 58. zbk., 2012

Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua

Erredakzio Kontseilua

Zuzendaria: Patxi Zabalo
Idazkaria: Mari José Martínez
Diruzaina: Eduardo Bidaurrezaga
Kideak: Elena Martínez Tola
Jokin Alberdi
Gloria Guzmán
Amaia Guerrero

Argitalpen Kontseilua

Alberto Acosta. FLACSO, Quito (Ekuador)
Iñaki Bárcena. Parte Hartuz, UPV/EHU
Roberto Bermejo. UPV/EHU
Carlos Berzosa. Madrilgo Unibertsitate Kompletensea
Cristina Carrasco. Bartzelonako Unibertsitatea
Manuela de Paz, Huelvako Unibertsitatea
Alfonso Dubois. Hegoa, UPV/EHU
Caterina García Segura. Pompeu Fabra Unibertsitatea
Eduardo Gudynas. CLAES, Montevideo (Uruguay)
Begoña Gutiérrez. Zaragozako Unibertsitatea
Yayo Herrero. Ecologistas en Acción
Mertxe Larrañaga. Hegoa, UPV/EHU
Carmen Magallón. Fundación Seminario de Investigación para la Paz
Carlos Oya. School of Oriental and African Studies, University of London (Erresuma Batua)
María Oianguren. Gernika Gogoratuz
Jenny Pearce. University of Bradford (Erresuma Batua)
Itziar Ruiz-Giménez. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa
Bob Sutcliffe. Hegoa, UPV/EHU
José M^a Tortosa. Alacanteko Unibertsitatea
Koldo Unceta Satrustegui. Hegoa, UPV/EHU

Hegoa lan-koadernoak aldizkako argitalpena da, Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa izeneko Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenerako Buruzko Ikasketen Institutuak, 1989. urtetik aurrera argitara emandakoa, Diziiplina arteko eta diziiplina anitzeko ikuspegia izanik, argitalpen honek argitaratzen dituen azterketak ikerkuntza berezi, enpiriko edo teoriko baten emaitza dira, eta giza garapeneraren eta lankidetzaren eraldatzailearen eremuko arazo, esparru analitiko eta jardueri buruzko alderdi zabal bat lantzen dute.

Hegoa lan-koadernoak aldizkariak izaera monografikoa du, urtean hiru aldiz argitaratzen da, eta ale bakoitza lan zehatz bati eskaintzen zaio, beste aldizkari batzuetako artikuluetan ohikoa dena baino hedadura zabalagoz. Paperean ateratzen da, baina euskarri elektronikoan ere eskura daiteke Hegoaren webgunean (<http://www.hegoa.ehu.es>).

Borrokalari ohien desarme, desmobilizazio eta gizarteratze prozesuak genero ikuspegitik

Egilea: iker zirion landaluze
Itzulpena: Irene Hurtado Mendieta (Hitzek)
Hegoaren Lan-koadernoak • 58. zbk. • 2012
Lege-gordailua: Bi-1473-91
ISSN: 1130-9962

Hegoa
www.hegoa.ehu.es

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre etorbidea, 81
48015 Bilbo
Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU. Carlos Santamaría zentroa
Elhuyar plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa.
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.es

Inprimatzea: Lankopi, S.A.

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Hegoa Lan-koadernoak sailean argitaratzen diren artikuluen guztiak, Creative Commons lizentzia honekin argitaratzen dira:



Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 3.0 España. Lizentzia osoa:
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Finantzatzaileak:



Argitalpen honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren babesa ekonomikoa jaso du, *Gerra ondoko birgaitzea eta bake eraikuntza giza eskubideak eta genero ikuspegitik: justizia, konpontze eta memoria historikorrako eskubidea* izeneko proiektuaren esparruan (2010).

Borrokalari ohien desarme, desmobilizazio eta gizarteratze* prozesuak genero ikuspegitik

iker zirion landaluze. UPV/EHUko Nazioarteko Harremanak eta Nazioarteko Zuzenbide Publiko arloko irakaslea eta baita unibertsitate horren Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenerako Hegoa Institutuko ikertzailea ere. Eusko Jaurlaritzaren Giza Segurtasun, Tokiko Giza Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Ikerketa Taldeko (GIC10/128) kidea da. Bere tesia Kongoko Errepublikako Demokratikoko borrokalarien desarme, desmobilizazio eta gizarteratze prozesuetan datza. Bere izen-abizenak letra xehez agertzen dira argitalpen honetan egileak berak horrela eskatu duelako.



Jasoa: 2012/09/04

Onartua: 2012/12/11

* Nahiz eta euskarazko itzulpen literalaren arabera horrela ez idatzi, testuan “Desarme, desmobilizazio eta gizarteratze” kontzeptuaren ordez DDR siglak erabiliko ditugu askotan. Alde batetik, irakurtzeko erosoago delako. Beste aldetik, gazteleraz (*desarme, desmovilización y reintegración*), frantsesez (*désarmement, démobilisation et réintégration*) eta ingelesez (*disarmament, demobilization and reintegration*) sigla hauen erabilpena oso zabaldua dagoelako.

Laburpena

Lan Koaderno honetan, zehatz aztertuko dugu borrokalari ohien desarme, desmobilizazio eta gizarteratze (DDR) prozesuetan emakumeek izan duten parte-hartzea. Gaur egunean, emakumeen parte-hartzea ez dalehentasunezkoztat jotzen bakea eraikitze nazioarteko agendan, zehazki, DDR programak abiarazteko ardura duten estatuko eta nazioarteko erakundeen agendan. Horrek ondorio larriak ditu, gerra ondoko testuinguruetan dauden emakumei begira. Izan ere, alde batetik, berreraikitze prozesuan, ez dira behar bezala barne hartzen talde armatueta borrokalari gisa aritu diren emakumeek eta, era berean, borrokan aritu ez diren emakumeek dituzten beharizanak eta interesak. Beste aldetik, gatazka dagoen bitartean genero harremanak berriz zehazteko eta berdintasun gehiago lortzeko egiten diren saiakerek (adibidez, emakumeek rol berriak hartzeak, erabakiak hartzeko guneetan parte hartzeak, antolatze ahalmen gehiago izateak eta gizarteratze mobilizazioetan gehiago parte hartzeak) nekez egingo dute aurrera gatazka ondoko testuinguruan; ez, behintzat, hori lortzeko abian jarri beharreko estrategiak abiarazten ez badira. Horiek horrela, DDR prozesuak oso tresna erabilgarria izan daitezke berdintasun hori lortu ahal izateko.

Gako-hitzak: desarmea, desmobilizazioa eta gizarteratzea (DDR), generoko ikuspegia, gatazka ondoko testuingurua, generoko berdintasuna, segurtasuna.

Resumen

Este Cuaderno de Trabajo analiza la participación de las mujeres en los procesos de desarme, desmovilización y reintegración (DDR) de combatientes. Actualmente, dicha participación no forma parte de las prioridades de la agenda internacional de construcción de la paz y, en concreto, de la agenda de los organismos nacionales e internacionales encargados de la implementación de los programas de DDR. Esto tiene serias consecuencias para las mujeres en los contextos posbélicos. Por un lado, porque tanto las mujeres que han sido combatientes en los grupos armados como las que no, ven limitada la inclusión de sus necesidades e intereses en el proceso de reconstrucción; por otro, porque toda posible redefinición de las relaciones de género durante el conflicto hacia una mayor igualdad (asunción de nuevos roles por parte de las mujeres, participación en la toma de decisiones, mayores cotas de organización y movilización social, etc.), difícilmente persiste en el posconflicto si no se ponen en marcha estrategias concretas para que así sea. En este contexto, los procesos de DDR pueden ser uno de los instrumentos que contribuyan a dicha igualdad.

Palabras clave: desarme, desmovilización y reintegración (DDR), enfoque de género, posconflicto, igualdad de género, seguridad.

Abstract

This Working Paper analyses women's participation in processes of disarmament, demobilization and reintegration (DDR) of combatants. At the moment, such participation is not prioritised within the international peace building agenda, and particularly within the agenda of national and international organizations involved in the implementation of DDR programs. This has serious consequences for women in post-conflict societies. On the one hand, this is due to the fact women combatants as well as women in non-combatants roles tend to have limited possibilities to include their needs and interests in the reconstruction process. And on the other, because any possible redefinition of gender relations during conflict towards a greater equality (women taking on new roles, participating in decision making, leading higher level of social organization and mobilization, and so on) rarely persist during post conflict if specific strategies are not implemented in that direction. In this view, DDR processes may become one of the instruments to contribute to the objective of post-conflict equality.

Key words: disarmament, demobilization and reintegration (DDR), gender approach, post-conflict, gender equality, security.

Aurkibidea

1. Sarrera	7
2. DDR prozesuak gatazka ondoko testuinguruetan	9
2.1. Gatazka armatuen eta gatazka ondoko testuinguruaren ezaugarriak	9
2.2. DDR prozesuen sorburua eta bilakaera	11
2.3. DDR prozesuen ezaugarriak	13
3. Generoko ikuspegia duten DDR prozesuak	17
3.1. Heterogeneotasuna: <i>emakumeak eta emakume borrokalariak</i>	17
3.2. Generoko ikuspegiak DDR prozesuetan duen garrantzia	18
3.3. Emakumeen parte-hartzea DDR prozesuetan	21
3.3.1. Bake-negoiazioak eta DDR prozesuak abiaraztea	21
3.3.2. Hautagarritasun-irizpideak DDR prozesuetan parte hartzeko	22
4. DDR prozesuetako osagaiak	25
4.1. Desarma	25
4.2. Desmobilizazioa	27
4.3. Birgizarteratzerako hasierako laguntza	29
4.4. Gizarteratzea	30
4.4.1. Gizarteratze ekonomikoa	30
4.4.2. Gizarteratze soziala	33
4.4.3. Gizarteratze politikoa	34
4.4.4. Gizarteratze psikologikoa	35
4.5. Sorterriratzea eta birkokatzea	36
5. Ondorioak: DDR prozesuak, berdintasunezkoagoa den gatazka ondoko gizartea sustatzeko aukera gisa	37
Bibliografia	41

“...emakumeek generoko indarkeriarik gabeko gizartean bizitzeko duten eskubidearen onarpena da gerra bukatu ondoren gizon soldaduengan abiaraz daitekeen aldaketa psikologikorik garrantzitsuenetako bat, eta ondorio sakonak ditu gizartea berreraikitzeari eta epe luzeko bake iraunkorra lortzeari begira” (Farr, 2002:24).

I. Sarrera

Gaur egungo teoria feministak agerian jarri du generoko joera partzial nabaria dagoela gerrari eta bakeari buruzko ikerketaren esparruan. Hainbat urtez, ikerketen arlo hori gizonezkoen ikuspegitik baizik ez da aztertu. Hala, bada, bazter utzi dira emakumeek gatazkako egoeretan eta gatazka ondoko testuinguruetan dituzten esperientziak eta ikuspegia, eta erabat murriztu da generoko azterketa, funtsean, emakumeen aurkako indarkeriari -eta bereziki sexu-indarkeriari- lotutako ikerketak egitera egon baita mugatuta. Horiek horrela, ez da inolako salbuespenik egon gatazka armatuen ondoren borrokalarien DDR prozesuetan emakumeek izaten duten parte-hartzearen azterketan.

Orainsuago, joera desberdineko jarrera feministetik, lanean ari dira emakumeek testuinguru horietan duten parte-hartzea, eta rolen, identitateen, botere-egituren eta generoko ideologiaren garrantzia agerian uzteko eta azterketan barne hartzeko -alderdi horiek ezinbestekoak baitira gatazken dinamikak ulertzeko-, sistematikoki egin baitzaie ez ikusia azterketen xedea finkatzean. Hala ere, kontua ez da puzzlean sartu gabe dauden piezak sartzea bakarrik, beste era bateko puzzle bat egitea baino.

Gaur egun bakeari eusteko egiten diren lanak oso desberdinak dira garai batean egin ziren lehen lan horiekin erkatuta; orduko hartan, “aurrez aurre zeuden alderdiak kasko urdinek kontrolatu eta patruilatutako su-eten lerro batez banatzen ziren” (Nazio Batuak, 2006:8). Denboraren poderioz, gatazka ondoko testuinguruetan dauden beharrianak zehaztu dira, eta

bakea eraikitzeko nazioarteko agendak dituen interesak finkatu dira, gaur egun, bakearen ardatz nagusiak hauexek direla aintzat hartuta: estatuak berriz eraikitzea (*Statebuilding*), eta estatu horiek mendebaldeko herrialdeen antzeko *merkatu-demokrazia* bilakatzea. Horrenbestez, gaur egun, bakea lortzeko lanak diziplina askoko prozesuak dira, hau da, askoz ere prozesu konplexuagoak. Lan horietan osagai berriak sartu dira barne, adibidez, borrokalarien desarma, desmobilizazioa eta gizarteratzea edota segurtasun-arloa eraberritzea. Bi prozesu horien bidez, egonkortasuna eta segurtasuna -erabat maskulinoa den ikuspegi klasiko eta estatuzentrikotik ulertuta- sustatu nahi dira testuinguru ahuletan.

Gatazka armatuan joera okerra egoten da, borrokalariak gizonezkoekin eta biktimak emakumeekin berdintzeko. Errealitatea, berriz, aski heterogeneoa izaten da. Emakumeek rol ugari betetzen dituzte gatazketan, eta, horrez gain, talde armatuetan hartzen dute parte. Hori dela-eta, gatazka bukatzean, desarmatu, desmobilizatu -izaera militarren orde, izaera zibila hartu- eta gizarteratu, hau da, jendarteko praktika sozialetan eta ekonomikoetan sartu behar dira berriz.

Lan honetan, emakumeek DDR prozesu horietan duten parte-hartzea aztertu nahi dugu, eta gatazka ondoko testuingurua berdintasunean finkoago oinarrituta egon dadin lortzeko prozesu horiek izan dezaketen indarra zehaztu nahi dugu. Horretarako, sarrera honen ondoren, hain zuzen, bigarren kapituluan, alde batetik, gatazken eta gatazka ondoko testuinguruen

esparru orokorra aurkeztuko dugu, eta, bestetik, DDR prozesuen esparrua landuko dugu.

Gero, hirugarren kapituluan, emakumeek gatazketan eta gatazka ondoko testuinguruetan bete ditzaketen rol ugariak aztertu, eta DDR prozesuetan parte hartzeko dauden baldintzak zehaztuko ditugu. Horren ondoren, laugarren kapituluan, zehatz azalduko ditugu DDR prozesuak dituen osagai guztiak, eta haietako bakoitzak emakumeen beharrianak eta interesak asebetetzeko aukerei begira dituen ondorioak ere bai. Azkenik, ondorio gisa, bosgarren kapituluan, gai eztabaidatu honi buruz egingo dugu hausnarketa: zenbateraino har daitezkeen DDR prozesuak aukeratzat gatazka ondoko jendartea berdintasunean finkoago oinarrituta egon dadin.

Hasi aurretik, nabardura batzuk egin behar ditugu, testuan barrena erabiliko ditugun zenbait kontzepturi buruz -gehienbat laburtze aldera-. Honako hauek dira:

- *Borrokalari* hitza erabiliko dugu, eta hitz horretan barne hartuko ditugu hala gizonak nola emakumeak. Beharrezkotzat jotzen dugunean, *gizon borrokalariak* edo *emakume borrokalariak* direla zehaztuko dugu.
- Azterketa honetan gatazka armatuaren eta, normalean, alderdiek adostutako bake-akordioaren ondoren izaten diren DDR prozesuak ikertuko ditugu. Testuan barrena, *gatazka* hitz laburtua erabiliko dugu, egokiagoa den *gatazka armatua* hitzaren ordez.
- Hitz generiko hauek baliatuko ditugu: *gizonak* -mutil koskorak eta gizon helduak barne hartuta- eta *emakumeak* -neska koskorak eta emakume helduak barne hartuta-. Azterketa honen helburu zehatza ez izan arren, laburtzeko behar horrek ez ditu ezkutuan utzi behar, gatazka armatu bat hasi aurretik, ondotik eta gatazka den bitartean, mutil gazteek eta neska gazteek dituzten errealitate desberdinak, alde batetik, haien artekoak, eta, bestetik, sexu bereko helduekikoak.

- Azterketa honetan, Boutak (2006) *talde armatu irregularrak* deitzen dituen horien DDR prozesuak aztertu ditugu gehienbat, hau da, gatazka armatuaren indarkeria erabiltzen duten eta estatukoak ez diren aktore militarren taldeak -askapen nazionalerako mugimenduak, gerrillak, miliziak, erresistentziako taldeak-. Azterketa egin bitartean, *talde armatu* deituko diegu, gehiago luzatu gabe. Hala, bada, kontzeptu horren barruan ez ditugu *talde armatu erregularrak* barne hartuko, hau da, ustez, indarra erabiltzeko legezotasuna duten instituzio militarrek -armada nazionalak-.

Azkenik, bi gogoeta garrantzitsu egingo ditugu, lagungarriak izan daitezkeelako testu hau irakurtzen duenak testuko edukiaren aurrean *koka nazan*. Lehenik eta behin argitu behar dut lan hau akademikoa dela, baina ez dela neutrala. Era berean, argi dago ez dela neutrala azterketa batean generoko auziak alde batera uztea. Testuinguru jakin batean gizonen eta emakumeen arteko genero roletan eta harremanetan dauden desberdintasunak aintzat hartzen ez dituzten ikerketek era akritikoan onartzen eta errepikatzen dituzte berdintasunezkoak ez diren aurretiazko genero rolak eta harremanak.

Bigarrenik, adierazi behar dut lan hau aribidean dagoen baina dagoeneko atzerakorik ez duen eraldaketa pertsonal baten emaitza dela. Orain dela urte batzuk argi erakutsi zidaten zein itsu egon nintzen generoko desberdintasunen aurrean, eta betaurreko batzuk aipatu zizkidaten, hobeto ikusteko. Harrez gero, banaka eta taldeka egindako prozesu baten bidez, betaurrekoak graduatzen saiatzen naiz, hobeto fokuratzeko eta egunean-egunean hobeto ikusteko. Erantzukizunez hartzen ditut nire gain lan honek dituen mugak, neurri batean ibili gabe dudana bidearen ondorio baitira. Bestetik, onartzen dut eraldaketa hori izan ez balitz, eta eraldaketa hori egiteko laguntza eman didaten pertsonak -emakumeak eta gizonak- alboan izan ez banitu, guztiz bestelakoa izango litzatekeela jarraian paratuko ditudan lerroen edukia. Eskerririk asko horiei guztiei.

2. DDR prozesuak gatazka ondoko testuinguruetan

2.1. Gatazka armatuen eta gatazka ondoko testuinguruaren ezaugarriak

Gerra Hotza bukatu ondoren izan diren gatazketan, ezaugarri batzuk zehatz ditzakegu, aurre-aurreko al-dian gatazka azaltzeko garrantzi gutxiago zuten edo agertzen ez ziren ezaugarriak. Horren ondorioz, Mary Kaldor-ek (1999) *gerra berriak* deitu zizkien azken gerrei. Pérez de Armiñoren arabera (2007), hauek dira ezaugarri berri horietako batzuk:

- Gatazka armatuak estatuen barruan izaten dira, ez estatuen artean; hala, beraz, *barneko* gerrak dira.
- Gatazka armatuak planetako eskualde geografiko jakin batzuetan metatzen dira: Asian, Kaukaso aldean eta, batez ere, Afrikan.
- Arrazoi ideologikoak direla-eta -justizia soziala, berdintasuna, askapen nazionala, eraldaketa politikoa-edo estatuen kanpoko politika dela-eta -lurraldeko eztabaidak, helburu geopolitikoak-, nortasunari lotutako faktoreak -etnia, klana, erlijioa- gehiago manipulatu dira, maiz gerrako ekonomia politikokoak bultzatuta¹.
- Armada nazionalek zeregin mugatuagoa dute, boterea eta indarra legez kontra baliatzen dituzten eta maiz erraz identifika daitezkeen aktore pribatuek -talde

armatuek, paramilitarrek, talde kriminalek, militarizatutako legez kanpoko esportazio sareek, mertzenarioek, armada erregularretatik bereizitako taldeek- duten heterogeneotasunaren aurrean (Bouta, 2005:6).

- Tradiziozko borrokako taktikak alde batera utzita, gudu-zelai lausotua agertzen zaigu aurrean. Bertan, alderdien arteko zuzeneko liskarrak urriak izaten dira, arma arinak erabiltzen dituzte gehienbat, eta, batez ere, biztanle zibilak dira orain helburu militarra. Honez gero, ez dute ezertarako balio gatazka armatua den bitartean guneak bereizteko aurrez zeuden ideiek. Ez dago gudu-zelai argirik; horren ordez, *erabateko gerra* dugu (Barth, 2002:2), eta biztanle zibilek edozein unetan eta edonon jasan dezakete eraso. Estrategia horren bidez, “*etsaia* etiketaren azpian sartzen diren horien erresistentzia menderatu nahi da, hala psikologikoki nola fisikoki” (Farr, 2002:11). Hala, bada, nabarmen areagotu dira giza eskubideen aurkako bortxaketak, biztanleen samaldakako lekualdaketak, eta krisi humanitario larriak.
- Gerraren esparru juridikoa errotik eraldatu da, hain zuzen, *ius in bello* izenekoa (gerra-eskubidea). Arlo hori juridikoki arautzen duten eta XX. mendeko gatazketan ezarri diren nazioarteko itunak -Nazio Batuen Gutuna, Ginebrako Itunak, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta Giza Eskubideen Nazioarteko

¹ Kontzeptu honek aditzera ematen du parte hartzen duten aktoreek -barrukoek zein kanpokoek- bizibidea ateratzeko eta beren interes politikoen eta ekonomikoen alde egiteko baliabide ekonomikoak ustiatzeko duten modua (Douma, 2001:11). Auzi honek gero eta garrantzi gehiago du gatazka armatuetan eta gatazka ondoko testuinguruetan.

Zuzenbidea- behin eta berriz urratzen dira; eta zailtasun handiak izaten dira itun horiek betetzeko.

- Gatazka horietako batzuk asko luzatzen dira denboran barrena, eta, horren ondorioz, kronifikazio-prozesua izaten da. Horrek ondorio larriak ditu tartean sartuta dauden biztanleentzat.

Ezaugarri horien ondorioz, gatazka amaitu ondoren, gatazka pairatu duen estatuak aurrean topatzen duen egoeran, ezaugarri askotako aktore armatu ugari egoten dira, era askotako motibazioak, tamainak, kanpoko laguntzak, finantziario-iturriak eta bakearekiko jarrerak dituzten aktoreak. Aktore horiek era sistematikoan urratu dituzte giza eskubideak; gerrako ekonomia politikoaren ondorioz, beharbada interesa izango dute segurtasunik gabeko egoerari eusteko; beste talde baten edo batzuen aurka egin duen biztanle-talde jakin baten interes manipulatu ordezkariek dira; eta luzaroan aritu dira borrokan.

Testuinguru horretan, estrategia zabal bat abiarazten da -normalean, nazioarteko komunitatearen bultzadaz-bakea eraikitzeke eta, bertan, hainbat prozesu jartzen dira harremanetan, besteak beste hauek: borrokalarien desarma, desmobilizazioa eta gizarteratzea, segurtasunaren esparrua berregituratzea eta trantsizioko justizia. DDR prozesuen bidez, egonkortasuna eta segurtasuna sustatu nahi dira, egoera hauskor eta mehatxagarri batean; eta, horretarako, borrokalariak hiru urrats hauek egin behar dituzte: armak eman, izaera militarren ordez izaera zibila hartu eta birgizarteratu.

Teorian, Nazio Batuen arabera, DDR prozesuak has-teko, aurrez, baldintza jakin batzuk bete behar dira gatazka ondoko testuinguruan. Hala ere, praktika askoz ere konplexuagoa da, eta, beraz, tankera horretako prozesuetan, maiz, ez dira ereduizko baldintza horiek betetzen, edo aski hondatuta egoten dira². Jarraian, baldintza horiek aztertuko ditugu, eta aurrez aurre izaten diren zailtasunetako batzuk aletuko ditugu (Nazio Batuak, 2010b:11 eta hurrengoak orriak):

- *Alderdiek bake-akordioa sinatzea DDR prozesuari esparru juridikoa emateko.* Batzuetan, bake-akordioak ez dagozkie berariaz DDR prozesuei -eta,

beraz, ez dute esparru juridiko zehatzik eskaintzen gauzatu ahal izateko-; eta, jakina, oso gutxitan hartzen dituzte barne gatazkan sartuta dauden alderdi guztiak (Escola de Cultura de Pau, 2009:5).

- *Bake-prozesuan sartuta dauden alderdien arteko konfiantza.* Oso zaila da hori ebaluatzea; gainera, maiz, alderdiek nahiago izaten dute prozesu osoan barrena beren indar militarrek ematen dien aukeraz baliatzea, eta horrek areago atzeratzen ditu DDR prozesuak. Hortaz, gurpil zoro arriskutsu hau ager daiteke: konfiantza eza dela-eta, DDR prozesuak ez du aurrera egingo, edo ez da abiatuko, eta, horren ondorioz, alderdien arteko mesfidantza areago puztuko da.
- *Gatazkan dauden alderdiek prozesuan parte hartzeko borondate politikoa izatea.* Elite politikoei -adibidez, Sierra Leonako gatazkan- edota aldameneko herrialdeek -Ruandako kasua, Kongoko Errepublikoa Demokratikoko gatazkan- laguntza ematen badute talde armatuak sortu eta jardun daitezten, areago korapilatuko da gatazkan dauden alderdiak zehazteko prozesua, eta alde horiek prozesuan parte hartzeko duten benetako borondatea. Aipatutako bi kasu horietan, bake-akordioa sinatu zuten hainbat talde armatuk uko egin zioten gero DDR prozesuan parte hartzeari, edo bertan behera utzi zuten, prozesua abiarazi eta handik gutxira.
- *Gutxieneko segurtasun bermeak eskaintzea gatazka ondoko testuinguruan.* Borrokalari askoren ustez, armak baliagarriak dira haien segurtasuna bermatzeko, eta, beraz, liskarrek bere horretan jarraitzen badute, zalantza egingo dute desarmatzeko prozesuaren aurrean. Beste talde armatu batzuk armagabetu ez badira, talde berriak sortuko dira, edo itunak eratuko dira haien artean. Beste horrenbeste gertatuko da armarik gabeko zibilen aurkako indarkeria-maila handia badago, edo segurtasun eza aski handia dela sumatzen badute.
- Ballek eta Van de Goor-ek (2006:1-2) baldintza hau gaineratzen diete aurrekoiei: *bake-prozesuarekiko*

² Baldintzak betetzen ez badira ere, ez diogu uko egin behar DDR prozesua abiarazteari. Hala ere, zailagoa izango da prozesuak arrakasta izatea. Nazio Batuek diotenez (A/63/881-S/2009/304:26), oinarritzko baldintza politikoak eta segurtasun aldeko baldintzak bete ezik, erakundeak ahalmen mugatua du “erantzun koherentea eta eraginkorra sustatzeko” mota horretako testuinguruetan.

nazioarteko konpromisoa egotea. Azken batean, horrek esan nahi du nazioarteko funtsezko aktoreek hartu behar dutela parte eta, gainera, normalean, haiekin batera, bi aldeetako edo alde askotako segurtasun-indarrak azalduko direla, bake-akordioa betekoa dela bermatze aldera.

2.2. DDR prozesuen sorburua eta bilakaera

Gerra Hotzaren garaian, gatazka ondoko testuinguruen esparruan, segurtasuna alderdi hauekin lotu ohi zen gehienbat: instituzio militarrek desegin, instituzio horietako kide ziren borrokalariak desmobilizatu, eta indar armatuak berregituratzeko prozesuekin. Prozesu horiek bi aldeetako emaitzen laguntza jaso zuten batez ere. Garai hartan, borrokalariak desarmatzeko, desmobilizatzeko eta gizarteratzeko, gehienbat, enplegu zibilak sortu ziren, eta lizentziamendua eman zieten beteranoei (Nazio Batuak, 2010b:11).

Laurogeiko hamarkadaren amaieran, azkenik, Nazio Batuen Erakundeak jarrera aldatu, eta laguntza ematen hasi zien mota horretako prozesuei, gatazka armaturen bat nozitutako herrialdeetan. 1990eko maiatzean, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 1989. urtean Nikaraguan ezarritako Nazio Batuen Erakundeko behatzaileen taldeak (ONUCA) zuen agindua zabaldu zuen (S/RES/650). Horrela DDR agindua sartu zuen lehenbiziko aldiz, bakeari eusteko ezarritako misio baten esparruan. Horren bidez, Nikaraguako erresistentziako kideek beren borondatez desmobilizatzeko aukera izan zezaten lortu nahi zen (Nazio Batuak, 2010:3).

Hain zuzen, une horretan -laurogeiko hamarkadaren amaieran eta laurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran-, baldintzapekotasun politikoa hasi zen indarra hartzen, nazioarteko lankidetzaren esparruan. Hala, bada, emaitzek demokraziari, giza eskubideei eta gobernu onari lotutako baldintzak ezartzen zituzten

(Dubois, 2000), eta, hortaz, laguntza jaso nahi zuten herrialdeek ezinbestez bete behar izan zituzten baldintza horiek laguntza jasotzeko³. Baldintzapekotasun politiko horren eskutik, instituzio militarren kontrol demokratikoak gero eta garrantzi gehiago hartu zuen (Nazio Batuak, 2010b:11) DDR prozesuen esparruan.

1992. urtean, Nazio Batuetako idazkari nagusia zen Boutros Boutros-Ghalik idatzitako “Bake-programa bat” izeneko dokumentuan, argi onetsi zen, gatazka zibilei amaiera ematera bideratutako akordioen esparruan, “lehen gatazkan zeuden alderdien desarmea” funtsezko ekintza zela, bakea sendotzeko eta bakeari eusteko lanen barruan (A/47/277-S/24111:17). Izan ere, laurogeita hamarrek hamarkadan, DDR prozesuak abiarazi ziren gatazka ondoko testuinguru askotan -batez ere, Saharaz hegoaldeko Afrikan- eta, aldi berean, osagai berriak hasi ziren kontuan hartzen, lehenago behar adinako arretaz aztertu ez ziren alderdiak (Nazio Batuak, 2010b:11), besteak beste, hauek: borrokalari ohiek eta beren komunitateek bizirauteko zituzten bitartekoak, emakumeak *-talde berezia* edo *biztanle bereziki erasotzen errazak*, haur soldaduekin batera (Anderlini, 2004:132; Worthen *et al*, 2011:36)-, GIB/HIESA zuten borrokalariak eta talde armatuetako kide ziren emakumeak.

Pixkanaka, kontzientzia hartu zen, eta ohartu ziren DDR prozesuek zerikusia zutela bakea sendotzeko garrantzia zuten beste auzi batzuekin; hona auziak: mugaz haraindiko auziak kudeatzea -adibidez, arma arinak eta kalibre txikikoak kontrolatzeari buruzko auziak-, segurtasunaren arloa eraberritzea, trantsizioko justizia edota gatazka ondoko jendartearen garapena -gehienbat, ekonomia berpiztea- (Nazio Batuak, 2010b:11-12).

2000. urtean, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak onetsi zuen *Emakume eta bakeari eta segurtasunari buruzko 1325 Ebazpenak* (S/RES/1325) goitik behera aldatu zuen paradigma, emakumeen parte-hartzea gizonen maila berean onartu baitzuen, gatazkei aurrea hartzeko eta konponbidea emateko ekimenetan, eta, orobat, bakea eta segurtasuna sendotzeko horietan⁴.

³ Une horretatik aurrera, baldintzapekotasun ekonomikoarekin batera (baldintzapekotasunen lehenengo belaunaldia), baldintzapekotasun politikoa azaldu zen (baldintzapekotasunen bigarren belaunaldia ere deitua). Baldintzapekotasun horrek laurogeiko hamarkadaren hasieratik baldintzatzen zuen nazioarteko laguntza hartzeko aukera, laguntza hori jaso ahal izateko, Hegoko herrialdeek barne-erreforma zorrotzak jarri behar izaten baitzituzten abian, politika ekonomikoaren eta monetarioaren esparruan.

⁴ 1325(2000) Ebazpena osatuz joan da harrezkero, Nazio Batuek hurrenez hurren egindako hainbat dokumenturen bidez, besteak beste, Nazio Batuen idazkari nagusiak emakume, bake eta segurtasunari buruz egindako txosten batzuen bidez (S/2002/154; S/2006/770 eta S/2010/498).

DDR prozesuei dagokienez, ebazpen horren hamahirugarren artikulua honela dio: “desarme, desmobilizazio eta gizarteratzerako plangintzan parte hartzen dutenei bihotz ematen die gogoan izan ditzaten borrokalari ohien beharrian guztiak, gizonezkoak zein emakumezkoak izan, eta, orobat, aintzat har ditzaten beren kargura dauden senideen beharrianak”. Kontuan-hartuzko horren lehenengo zatian agertzen den ideia aspalditxotik babesten zuen bakea eta lan akademiko feministarako nazioarteko erkidegoak (Farr, 2002:4); eta hauxe da: ezinbestekoa da generoko auzien ondorioak ulertzea, bakea eraikitzeko ekimenek arrakasta izan dezaten.

Bestetik, ebazpen hori emakumeen parte-hartze politikoa bultzatuz jendartea eraldatzeko hainbat bide erabiliz egindako lanaren emaitza izan zen. Bide horien artean, besteak beste, Nazio Batuen esparruan onartutako nazioarteko tresna batzuk baliatu ziren (*Ibidem*:13), hala nola, *Emakumeen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatze*ko Biltzarra⁵, 1979an onetsia izan zena, edota *Beijingeko Ekintza Plataformaren ebazpena*⁶, Nazio Batuen babespean 1995ean egindako Emakumeen Laugarren Biltzarrean onetsitakoa.

Nazio Batuen esparruan berriz, goi-mailako taldeak Nazio Batuen bake-operazioei buruz 2000. urtean egin zuen txostenak -arrunki, Brahimi txostena bezala ezagutzen denak- argi onartu zuen bakeari eusteko lanek multidimentsionalak izan behar zutela, eta proposamena egin zuen DDR programak “lehenengo alditik” sartzeko bake-operazioetan, era horretan, gatazka ondoko testuinguruetan egonkortasuna eta segurtasuna indartu ahal izateko, eta, horrenbestez, gatazkei berriz ekiteko aukera gutxiago egon zedin (*A/5/305-S/2000/809*:ix eta 8).

Gatazka ondoko egoeretan segurtasuna eta egonkortasuna bilatu nahian, bakeari eusteko nazioarteko misioek lehentasunez jotzen dituzte DDR programak, eta, orobat, segurtasunaren esparrua eraberritzeko xedea duten horiek. Nazioarteko agenda -eta garapenerako lan-kidetzako funtsen zati handi bat- *bake liberalaren* proiektu horretara bideratu da (Ruíz-Giménez, [2013]:278). Proiektu horren bidez, alde batetik, estatua berreraiki (*Statebuilding*) eta estatua bere lurraldearen eta biztanleen kontrola izan dezan lortu nahi da eta, bestetik, ustez huts egin duten estatua eraldatu nahi dira, eta bultzada eman nahi da *merkatu-demokrazia* bilaka daitezen, men-debaldeko herrialdeen kidekoak izan daitezen.

Bitartean, DDR prozesuen esparruan, ahalegina egin da aski konplexua den prozesua estandarizatzeko. Prozesu horretan, era askotako aktoreek hartu dute parte, estatukoek eta nazioartekoek eta, hala, bada, proiektua era askotara uler eta abiaraz daiteke. Sistematizatzeko ahalegin horren adibide gisa, horra hor *Desarme, desmobilizazio eta gizarteratze estandar integratuak (Integrated DDR Standards-IDDRS)*⁷. Nazio Batuek garatu dituzte estandar horiek, eta erakunde horrek bakeari eusteko bultzatu dituen misioen esparruan abiarazi diren DDR prozesu guztietan barne hartu diren politiken, giden eta prozeduren esparru zabala eta zehatza dira.

Azkenik, azken urte hauetan, gatazka ondoko testuinguruak gero eta konplexuagoak direnez, eta egoera horiek dituzten erronketara era malguagoan eta hurbilagoatik gerturatu behar dugunez, neurri berriak ezartzen ari dira, *DDR prozesu tradizionalak* osatzeko -baina ez gaintzeko-. Neurri berri horiek toki-esparruan garatu dira, eta erantzun baliagarriak eskaintzen dituzte egoera berri horietara behar bezala egokitu ahal izateko.

⁵ Nazioarteko itun hau 1981. urtean sartu zen indarrean, eta, gaur arte, 187 estatuk berretsi dute. Itunari jarraiki, besteak beste, estatuek “neurri egokiak hartu behar dituzte herrialdeko bizitza politikoan eta publikoan emakumearen aurka dagoen bereizkeria ezabatze... eta behar bezala bermatu behar dute, gizonek dituzten baldintza berberak izanda,... emakumeek eskubidea izango dutela gobernuaren politikak prestatzeko eta betearazteko lanetan parte hartzeko, kargu publikoak betetzeko, eta gobernuaren arlo guztietan funtzio publikoak gauzatzeko” (7. artikulua).

⁶ Dokumentu honek, E atalean -*Emakumea eta gatazka armatuak* izenekoan-, helburu estrategiko hau proposatu zuen: “gatazkak konpontzeko erabakiak hartzean, emakumeek gehiago parte har dezaten lortzea”. Ildo horretan, hainbat neurri finkatu zituen (Nazio Batuak, 1995:62), besteak beste, hauek: “emakumeen parte-hartzea sustatzea, berdintasun-aldetik egoera berean egonik; eta aukera-berdintasuna indartzea, emakumeek bakearen aldeko foro eta jarduerak guztietan esku har dezaten, maila guztietan, batez ere erabakiak hartzen diren guneetan”, eta “gatazka armatuak konpontzeko prozesuetan genero-ikuspegia sartzeta”.

⁷ Nazio Batuen Erakunde arteko Lan Taldeak 2004. eta 2006. urteen artean egin zuen lanaren emaitza izan ziren *desarme, desmobilizazio eta gizarteratze estandar integratuak*. Talde horretan, erakunde hainbat sailek, agentziak, programak eta funtsak hartu zuten parte; eta, horrez gain, aski hurbilekoak ziren nazioarteko beste erakunde batzuek ere esku hartu zuten, engaiatuta baitzeuden Nazio Batuen bakeari eusteko operazioek desarmatzeko, desmobilizatzeko eta gizarteratzeko emandako agindua abiarazteko lanetan.

Arrunki, *bigarren belaunaldiko DDR prozesuak*⁸ deitzen zaie, eta hiru kategoriatan sartu ditzakegu (Nazio Batuek, 2010b:25-35):

- *Gatazka ondoko testuingurua egonkortzeko neurriak*, besteak beste, enplegua premiaz sortzeko programak, eta segurtasunerako eta indarkeriari aurre egiteko erkidegoko hurbilpenak.
- *Xede-talde bereziekin lan egitea*, adibidez, graduazio altuko ofizialekin eta buruzagiekin, borrokalari beterranoekin, arriskuan dauden gaztee-kin eta bandekin.
- *Beste hurbilpen batzuk desarmeari eta arauzkoak ez diren armen arazoari ekiteko*, besteak beste, DDR prozesuetako aldiak edo *Garapena armen truke* proiektuak garatzerakoan malgutasunez jokatzea.

DDR prozesu tradizionalak eta *bigarren belaunaldiko* DDR prozesuak helburu berberak dituzte, baina desberdintasun ugari daude haien artean. Izan ere, hurbilpen tradizionalak borrokalariari ematen die lehentasuna, eta hurbilpen berriak, berriz, gehiago lantzen ditu erkidegoak oro har. Era berean, neurri horiek prozesu tradizionalaren ondoren -prozesua arrakastatsua izan den edo ez alde batera utzita- edo era paraleloan ezar daitezke, haren eragina ahalik eta gehien handitzeko. Ez dute ezarpen sekuentzial edo sistematikorik behar. Elkarren artean harremanetan jarrita edo teilkatuta ezar daitezke; edo, bestela, beharrezkoak ez direla iritziz gero, neurriak ez ezartzea erabaki daiteke (*Ibidem*, 2010:17 eta 2010b:9-10, 25-26).

2.3. DDR prozesuen ezaugarriak

Borrokalari ohien DDR prozesuak gatazka armatuaren ondorekin izaten dira, aurrez aurre dauden aldeek bake-akordioa sinatu ondoren. Prozesu horien bidez, lehenik, borrokalariak armak entregatu behar dituzte; gero, bigarrenik estatutu militarren ordez estatutu zibila hartu behar dute; eta, hirugarrenik, jendarteko praktika sozialetan eta ekonomikoetan sartu behar dute berriz. DDR prozesuek dituzten ezaugarrien artean, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Prozesu dinamikoak eta malguak dira, testuinguruaren eta haien bilakaeraren inguruabar berezietara egokitzeko modukoak (Escola de Cultura de Pau, 2008:10). Ez dute izaera linealik, eta ez dira jarduerak tekniko huts bat (Ball eta Van de Goor, 2006:1-2).
- Prozesuaren helburu nagusia da egonkortasuna eta segurtasuna sustatzea -ikuspegi klasikoetik ikusita eta estatuen segurtasuna ardatz gisa hartuta-, gatazka ondoko testuinguru jakin batean, era horretan, berrekitze-lanekin eta garapena lantzen hasi ahal izateko (Nazio Batuek, 2006:8). Berez, haiek ezin dute gatazka konpondu, ezta gatazka berriz has dadin galazari ere (Ball eta Van de Goor, 2006:4). Hala ere, oso egokiak dira ingurune segurua finkatzen laguntzeko, gero, bertan, bakea eraikitzeko estrategia zabalago bateko beste osagai batzuk abiarazi ahal izateko (Escola de Cultura de Pau, 2008:8); hain zuzen, haiekin erlazionatuta dauden osagaiak, esate baterako, segurtasunaren erreforma⁹ eta trantsizio justizia¹⁰.

⁸ Nazio Batuen erakundeak hitz global hau erabiltzen du (2010; 2010b), hurbilpen berri hori definitzeko, *behin-behineko egonkortzea* terminoarekin batera -bere helburu nagusiari begira-. Izena gorabehera, praktikan, ez du DDR tradiziozko prozesua gainditzen. Izan ere, bigarren belaunaldian sartutako praktika batzuk lehenagotik zeuden abiarazita (*Ibidem*, 2010b: 9).

⁹ *Segurtasunaren sektorearen erreforma* egiteko, estatuko segurtasuna osorik berregituratu behar da eta, hor, barne hartzen dira, besteak beste, sistema judizialak eta espetxeak, eta estatuko segurtasun-indarrak eta indar armatuak -gehienbat, armada nazionala eta polizia-. Erreforma horiek harremanetan jartzen dira DDR prozesuekin, esate baterako, DDR prozesuetan parte hartzen duten borrokalariari estatuko segurtasun-indarretan sartzeko aukera eskaintzen zaienean edo, bestetik, segurtasuneko indar horiek berregituratu ahal izateko, une horietan DDR prozesuetan parte hartu beharko luketen soldaduak desmobilizatzen direnean, jendartean berriz ezartzeko.

¹⁰ *Trantsizio justizia* terminoak hizpidera ekartzen dizkigu gatazka ondoko jendartean, giza eskubideen urraketez beteriko iragana kudeatzeko, abian jartzen diren estrategiak -egia bilatzea, biktimen identitatea eta helmuga argitzea, biktimak sorrarazi dituzten pertsonak identifikatzea, erantzukizunak esleitzea, konpontzea- (Escola de Cultura de Pau, 2009:5). Zerikusi zuzena du DDR prozesuekin; izan ere, prozesu horietan dagoen gairik eztabaidatuenetako bat hau da: armak entregatu ondoren, borrokalariak izango duten tratamendu juridikoa eta politikoa, hain zuzen, gatazka izan den bitartean jazotako gertaeretan duten zigor-erantzukizuna (*Ibidem*:14 eta 35).

Prozesu horren esparruan, *generoko justizia* terminoak honi egiten dio aipamena: gatazka izan den bitartean eskubideak urratu dizkietela-eta justizia lortu ahal izateko, emakumeek aurre egin behar dieten desberdintasunei. Zailtasun horien artean, besteak beste, hauek aipa ditzakegu: emakumeek ordezkari gisa dutela egia bilatzeko prozesuetan, gizonek baino askoz ere mugatuago dutela justiziara iristeko bidea, eta konpontzeko neurriak ez ikusia egiten dietela gatazkan eta gatazka ondoren desberdintasun sozialek, ekonomikoek eta politikoek emakumeengan duten eragin bereziak.

- Konplexuak dira (Nazio Batuak, 2006:9), gatazka ondoko testuinguruetan izaten diren oso alderdi desberdinak hartzen dituztelako barne -alde militarrek, politikoak, humanitarioak, sozioekonomikoak, segurtasunari lotutako aldeak eta abar-.
- Denborazko esparru mugatua dute (Ball eta Van de Goor, 2006:4), eta, hasieratik bertatik diseinatu ohi da haiek burutzeko estrategia -arrunki, irtete-ko estrategia deitzen dena-.
- Haiek garatzeko prozesua hauskorra da. Izan ere, funtsean, tartean sartuta dauden aldean borondatean oinarritzen da (Anderlini, 2004:127), eta alderdi ekonomikoek¹¹, sozialek eta segurtasunekoek¹² erabat baldintzatzen dute. Gatazka armatua bukatzeak ez du ezinbestez esan nahi indarkeria amaituko dela. Izan ere, maiz, indarkeriazko gatazken ondorioak luzaroan pairatzen dira, gatazka bukatu eta gero (Goodhand, 2006:28).
- Alderdi subjektiboak eta psikologikoak hartzen dira barne (Escola de Cultura de Pau, 2008:10), zuzeneko eragina baitute gatazkan sartuta dauden aktoreen arteko konfiantza eta adiskidetzeari berreskuratzeko.
- Tresnak dira, eta tresna guztietan gertatzen den bezala, tresna nola erabiltzen den, guztiz desberdina izango da dena. Bultzada izan daitezke edo, aitzitik, oztipoa izan daitezke segurtasunari eta

egonkortasunari begira eta, era berean, gatazka ondoko testuinguru jakin batean konfiantza eta adiskidetzeari indartzeari begira.

- *Desmilitarizazio erlatiboa* ekartzen dute (*Ibidem*, 2009:8), normalean, alde bateko talde armatuetako kide guztiak edo gehienak desarmatu eta desmobilizatu behar baitira; beste alde, berriz, nabarmen txikiagotuko da, eta estatuak etorkizunean izango dituen indar armatuak eratuko ditu. Sobera diren armak suntsitzen dira, desmobilizatuak borrokalariak jendartean txertatzen dira, eta armen eta soldaduen kontrol bateratua ezartzen da berriz.
- Aktore asko aritzen dira horretan eta, beraz, koordinazioa lortzea izaten da erronka handienetako bat. Testuinguru gehienetan, erakunde nazional bat egoten da bereziki horretarako -normalean, desarme, desmobilizazio eta gizarteratze batzorde nazionala deitutakoa-. Erakunde horrek nazioarteko edo eskualdeko erakundeen laguntza izaten du, besteak beste, Nazio Batuek¹³, Munduko Bankuak¹⁴, Europar Batasunak, Nazio Batuen Garapenerako Programak, beste erakunde espezializatu batzuek, eta Nazio Batuen beste programa eta organo batzuek¹⁵ laguntza ematen baitiote. Azkenik, prozesuak estatu jakin batzuetan abiarazten direnean, estatu horiek ere beste estatu batzuen laguntza jasotzen dute bi aldeetatik¹⁶.

¹¹ Gehienbat borrokalari ohien gizarteratze prozesuan, nazioarteko emailek egindako finantziarioaren mende egoten dira beharrian ekonomikoak -eta normalean, aski handiak dira-. Nazio Batuen esparruan, berriz, borondatezko ekarpenen mende daude (A/55/305-S/2000/809, 2005:9)-. Hala, beraz, prozesua oso ahula da eta ziurgabetasunez beterik dago.

¹² Normalean, borrokalari ohiak heziketa eta prestakuntza gutxiko pertsonak izaten dira, ez dute lanik, ezta bizibiderik ere, gerrak eragindako trauma pairatu dute eta, gainera, oso ikuspegi militarizatua izaten dute munduari buruz (Nazio Batuak, 2006:427). Horiek horrela, borrokalari ohiak mehatxu bat izan daitezke, oro har, bakea eraikitze prozesu zabalari begira eta, bereziki, harrerako erkidegoei dagokienez.

¹³ Normalean, DDR prozesua izaten den testuinguruan, Nazio Batuen misio bat izaten da eta era askotako eskumenak izan ditzake, dagokion aginduaren arabera. Horrelako misiorik ez dagoenean, Nazio Batuen Garapenerako Programa arduratu ohi da nazioarteko parte-hartzea koordinatzeaz (Escola de Cultura de Pau, 2008:13).

¹⁴ 2007. urteko datuen arabera (*Ibidem*:4), Munduko Bankua da munduan gauzatu diren DDR prozesu gehien finantzatzaile nagusia; ildo horretan, Munduko Bankuak eskualdeko funtsak (hala nola Desmobilizazio eta Gizarteratzerako Herrialde Askotako Programa) edo herrialde zehatz batzuentzako laguntza zuzenak bideratu ditu. Haren atzetik, Nazio Batuen Garapenerako Programa da hurrengo finantzatzaile nagusia, eta harengandik oso hurbil Europar Batasuna dago.

¹⁵ Horien artean, Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea (OIM), Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa (UNICEF), Elikagaien Munduko Programa (PMA) eta Iheslarietarako Nazio Batuen Goi Komisarioa ditugu, laguntza zehatzak ematen baitituzte, bakoitzari dagokion arloei lotutako gaietan.

¹⁶ 2007. urteko datuen arabera berriz (*Ibidem*), urte horretan, Japonia eta Estatu Batuak izan ziren DDR programei dohaintza gehien egin zieten herrialdeak.

- DDR programak abiaraztean, historikoki, logika bertikalari jarraitu zaio funtsean, alegia, goitik behera doan logikari (*up-down*). Hala ere, hori ez zen batere lagungarria, ez estatuko edo tokiko jabetzea sustatzeko, ez tartean sartuta zeuden aktoreek parte har zezaten lortzeko. Arazo horretaz oharturik, gaur egun, hurbilpen berriak bilatzen dira, tokiko dinamika aldakorretara egokiagoak diren hurbilpenak, adibidez, *gizarteratze komunitarioa*¹⁷ edo *bigarren belaunaldiko DDR* neurriak.

¹⁷ Kontzeptu hau argi eta garbi azalduko dugu gizarteratze prozesuari eskainiko diogun epigrafean.

3. Generoko ikuspegia duten DDR prozesuak

3.1. Heterogeneotasuna: emakumeak eta emakume borrokalariak

Aski era akritikoan onartu ohi da gizonen joera gehiago izaten dutela indarkeria erabiltzeko emakumeek baino, eta emakumeek, aldiz, berez jotzen dutela bakera (Bouta, 2005:5). Gatazka armatuetan armak edukitzea eta erabiltzea gizonekin lotu ohi da. Era berean, gizonak izaten dira, azken batean, armak erabiltzeagatik zauritu eta hiltzen direnak, emakumeak baino askoz ere kopuru haziagoan. Hala ere, horrek ez du esan nahi gatazketan emakumeek armarik ez dutenik, edo erabiltzen ez dutenik (Nazio Batuak, 2006:539).

Gaur egungo gatazka armatuetan, emakumeak, biktimak izateaz gain (Mendia, 2000:7), emakume guztiahal-dunak dira (Murguialday, 2008:39). Ez dira soilik ama, arreba, emazte edo alaba gisa ikusten (Farr, 2002:7). Era berean, gaur egun, gizonak gerrara joaten eta emakumeak etxean geratzen erakusten dituen irudiak ez du zentzurik (Barth, 2002:2), hau da, emakumea gatazkatik urrun, toki seguruan azaltzen duen irudiak zentzua galdu du, Farr-ek dioen moduan (2002:11), gatazka armatuen esparruan generoaren arabera espazioaren banaketa desagertu delako.

Zenbait sinesmenek irudi sinplista¹⁸ edo estereotipatuegia ematen dute gatazkan eta gatazka ondoren

emakumeek betetzen duten eginkizunari buruz. Era berean, badaude emakumeen izaerari buruzko ikuspegi esentzialistak eta emakumeek berez bakerako joera dutela dioten ikuspegiak. Horien guztien aurrean, egia esan, emakumeek gatazka armatuetan izan duten esperientzia oso heterogeneoa da. Biktimak izateaz gain, bakea lortzeko eta adiskidetzeko eragileak dira eta, bestalde, indarkeria eta segurtasun eza ere sorrazten dituzte.

Enloek dioenez (2000:2), emakumeen militarizazioa ezinbestekoa da, gizonen militarizazioari begira. Gerrako propaganda hedatuz, beren familian edo erkidegoan balioak eta ideiak transmitituz -adibidez, *besteenganako* gorrotoa piztuz-, edo borrokalari gisa arituz, emakumeek ere indarkeria sustatzen dute gatazka armatuetan.

Talde armatuetan dauden emakumeen ehuneko aski aldakorra da, baina, normalean, %10 eta %30 artean egoten da; esate baterako, Sri Lanka, El Salvador edota Nikaraguako gatazketan, emakumeen parte-hartzea azken kopuru horretara hurbiltzen da (Bouta, 2005:5). Emakumeak era askotako arrazoik bultzatuta sartzen dira gatazka armatuetan. Batzuk bahituak izan ondoren sartzen dira¹⁹, beste batzuk beren borondatez sartzen dira iritzi politikoek bultzatuta, edo etxean

¹⁸ Murguialdayk kritikatzan duenez (2000:39), maiz azterketa manikeoak egiten dira gerrak emakumeengan duen eraginari buruz, azterketa horietan dena baita galera edo irabazia, ez dago besterik. Egile horren arabera, alde batetik, gerrak ez die soilik oinazea eragiten emakumei, eta, bestetik, gerrak "ez dira emakumeen askapenak dituen gaitz guztien konponbidea".

¹⁹ Oro har, emakumeak gizonak baino ahulagoak dira bahiketei begira, maiz urrutiratu behar baitute erkidegoak eskaintzen dien babesetik eguneroko zereginak egiteko, esate baterako, ur bila joateko edo egurra biltzeko (Worthen, 2011:36).

jasaten dituzten gehiegikerietatik eta zapalkuntzatik ihesi, beren familiako kideei jarraiki, edota segurtasunik gabeko egoeren aurrean babesa aurkitu nahian (Worthen *et al*, 2011:36). Era berean, dirudienez, gizon helduak biltzeko aukera urritzen den neurrian, emakumeak eta haurrak errekrutatzeke joera handitzen da (Bouta, 2005:6).

Paradoxikoa ematen badu ere, maiz, gatazkei esker, emakumeek ahalduntzeko aukera izaten dute, erantzukizun handiagoak har ditzakete beren gain, edo politikan gehiago parte har dezakete eta, era berean, erabakiak hartzeko prozesuetan esku har dezakete (Murguialday, 2000:40; El-Bushra, 2004:152). Era horretan, “era askotara izan daitezke ekintza-subjektuak” (Mendia, 2009:7).

Izan ere, gatazkak gatazka aurre-aurreko aldiaren zeuden generoko roletan eta identitateetan²⁰ sorrarazten duen aldatetari esker, emakumeek era askotako zereginak bete ditzakete gatazketan, besteak beste, hauek: borrokalaria, gerrako alargunak, espioiak, gerraren aurkako eta adiskidetzearen aldeko erakundeetako kideak, gerrako arma gisa baliatzen den sexu-indarkeriaren xedea, borrokalarien emazteak, gobernu kanpoko erakundeetako langileak, landa-guneetako beren erkidegoetan bizi diren emakumeak, esklabo sexualak, gatazkatik urrunduta hirietan bizi diren emakumeak eta abar.

Emakumeek gatazkan bete duten rol edo bete dituzten rolez gain, era askotako baldintzak daude tartean -besteak beste, maila soziala, arraza, adina, jatorri geografikoa edo orientazio sexuala (Harding, 1987:8)-, eta baldintza horiek lagungarriak dira emakumeek dituzten rola eta generoko identitateak zehazteko. Baldintza horiek moldatzen dituzten rolekin eta identitateekin hautsiz gero, era desberdinetako zapalkuntza-moduei egin beharko diete aurre, eta, beraz, zaila izango da azterketak egitea edo unibertsaltzat jotzeko moduko estrategiak proposatzea (Farr, 2002:4).

Azkenik, emakume borrokalarietarako dagokienez, DDR prozesuetan parte hartzen dutenean, beste gai batzuen eragina ere nabaritu dute -eta, beraz, gai horiek

goian aipatu ditugun baldintzei gaineratu beharko dizkiegu-. Besteak beste, gai hauek hartu beharko ditugu aintzat: talde armatuarekin beren borondatez bat egin duten edo horretara behartu dituzten; beren gaitasunak, aurrez zuten esperientzia, hezkuntza-maila, talde armatuan emandako denbora, gatazka izan den bitartean beren erkidegoekin eta jatorrizko sare sozialek izan dituzten harremanak, beren osasun fisikoa eta mentala, haien mende dauden pertsonen kopurua, eta gizarteratzean harrera egiteko hautatzen duen erkidegoa (*Ibidem*:33).

Horiek guztiak aintzat hartuta, badirudi *emakumeak* edo *emakume borrokalariak* kategoriak modu generikoan erabiltzea baliagarria izan daitekeela kategoria horiek beste batzuekin erkatuta dituzten berezitasunak ikustarazteko -adibidez, *gizonak* edo *gizon borrokalariak* kategoriek erkatzeko-. Hala ere, ez da inola ere baliatu behar emakumeek -eta emakume borrokalariak- gatazka edo gatazka ondoko testuinguruetan izaten dituzten bizipen desberdinak ezkatuzeko.

3.2. Generoko ikuspegiak DDR prozesuetan duen garrantzia

Gatazka dagoen bitartean, gizonen eta emakumeen oso modu desberdinean eskuratzen dituzte baliabideak. Gatazka ondoko egoeran, desberdintasun horrek horixe irauten du; eta, DDR prozesuetan, gainera, emakumeek egoera txarragoan egoten dira onurak jaso ahal izateko (Worthen *et al*, 2011:37), besteak beste, gizonen heziketa hobea, segurtasun gehiago eta mugikortasun gehiago izaten dituztelako, eta emakumeak baino agerikoagoak ere izaten direlako (LANE, 2010:74).

DDR prozesuen esparruan, *a priori* onartzen da borrokalariak gizon armatuak izaten direla. Horri jarraiki, haiek direnez gatazka ondoko testuinguruetako bake eta segurtasunari begira dagoen mehatxu nagusia, era berean, haiek izan behar dute prozesu horien helburu nagusia. Hala ere, errealitatea askoz ere heterogeneoagoa da. Jakina denez, gizonen -helduek eta hurrek- modu agerikoagoan hartzen dute parte gatazka arma-

²⁰ Jendarteak horrela espero duelako gizonen eta emakumeen artean edo erkidegoan egingo dituzten jarduerak dira genero rola. Generoko identitateak, berriz, gizon eta emakumeengandik espero diren ezaugarri eta jokabide idealizatuak dira (El-Bushra, 2004:171). Genero rola eta identitateak testuinguru soziokulturalaren arabera aldatzen dira.

tuetan, borrokalari ohien zati handi bat gizonetzkoak baitira. Hala ere, emakumeek ere -helduek eta haurrek- gatazkaren esparru guztietan hartzen dute esku, talde armatuetan ere bai.

Talde armatuetako borrokalarien %10 eta %30 artekoak emakumezkoak dira (Bouta, 2005:5). Gatazka ondoko egoeretan, etxe guztien %75en buruan daude emakumeak (Nazio Batuak, 2006:524) eta, gutxi gorabehera, jendarteko biztanleen %50 inguru dira. Hala, beraz, DDR prozesuen eragina hartzen duen jendarteko gune guztietan hartzen dute parte. Talde armatuetan aurki ditzakegu, armak hartzen dituzte eskuetan, hornidurak eramaten dituzte, laguntza ematen dute hala frontean nola atzealdean, bikotekideekin batera joaten dira, eta esklabo sexualak ere badira. Bakea eraikitzeko lanetan aritzen dira, tokiko edo nazioarteko gobernuz kanpoko erakundeetan jarduten dute, gatazkaren aurkako emakumeen erakundeetan eta biktimei laguntza emateko edo adiskidetzaren aldeko erakundeetan ere bai. Borrokalari ohiak erkidegoetan berriz sartzeko prozesuetan parte hartzen dute eta, hor, indarkeriaren eragina jasan dezakete beren larriuan, edo beren familiariek eta erkidegoek paira dezakete bestela; eta kultura askotan zaintzaile nagusien rola esleitzen zaienez, emakumeen esku egoten da borrokalari ohien gizarteratze sozial eta psikologikoaren ardura gehiena, batez ere zaurituta, traumatizatuta, gaixo edo GIB/HIESA kutsatuta dauden edo adingabeak diren horien ardura. Talde armatuekin harreman esturik ez dutenean ere, emakumeak guztiz baldintzatuta egoten dira, DDR prozesuetan hartzen diren erabakien menpe.

Hala ere, egia esan, emakumeak alde batera utzi dira erabat DDR prozesuetan eta, era berean, bazter utzi izan dira gatazka armatuak eta indarkeria politikoa ikertu dituzten azterketetan (Mendia, 2009:7). Ez dute bake-negoiazioetan parte hartu, ezta DDR prozesuetako Batzorde Nazionalan ere. Ez dira aintzat hartu talde armatuen indarrak zenbatzean eta, era berean, ez dira parte-hartzaile gisa barne hartu DDR prozesuetan. Barne hartu dituztenean, berriz, beren beharrezkoen zegozkien onurak jaso dituzte, onura desagokiak, alegia, edo gizonak jaso dituztenak baino garrantzi gutxia-

goko onurak jaso dituzte bestela (Ball eta Van de Goor, 2006:13)-; eta hori hala izan da, ez direlako behar bezala balioetsi emakumeek talde armatuen barruan betetzen dituzten rol ugariak (Nazio Batuak, 2006:84).

Urte luzez, emakumeak alde batera utzi dira DDR prozesuetan, eta, horren ondorioz, ezin izan dute prozesu horietan parte hartu gizonetzkoak zituzten aukera berdinekin. Horren ondorioz, emakumeek esparru horretan egin ditzaketen ekarpen, bizipen eta ikaskuntza ugari sistematikoki egin zaie ez ikusia (*Ibidem*:524). Horrez gain, prozesu horien esparruan, ez dira emakumeen beharrezkoen interes bereziak aintzat hartu (Farr, 2001; Escola de Cultura de Pau, 2008:4).

Emakumeak bazter utzi dira DDR prozesuetan, eta hori ez da halabeharrezkoen ondorioa. Emakumeek era askotako ekarpenak egin dizkiete hala gatazkari nola bakeari; baina ez ikusia egiten zaie ekarpen horiei, arrazoi askorengatik; hona arrazoi nagusietako batzuk:

- *Botere egitura elitista* batzuen estrategia da -egitura patriarkalen estrategia, gehi daiteke-, egitura horiek ez baitute nahi emakumeek parte har dezaten gatazka ondoko testuinguruan zabaltzen den politika- ekonomia- eta segurtasun-gune berrian (Nazio Batuak, 2006:524).
- Beste arlo askotan gertatzen denez (Harding, 1987:2), DDR prozesuak aztertzean, maskulinitasuna da neurtzeko baliatzen den *eredua eta unitatea*. Hala, gizon borrokalarien esperientzia oinarritzat hartu eta orokortu da, esperientzia unibertsal balitz bezala, emakume borrokalariak ere partekatuko balute eta haien zatitza ere baliagarria balitz bezala. Arlo horretan generoko ikuspegia sartu denean, Farr-ek (2002:22) *gehitu emakumeak eta nahasi* deitu duen estrategia erabili da; hau da, ez zaie behar adinako arretarik jarri DDR prozesuetan emakumeek parte hartzeak dakartzan arronka praktikoa bereziki.
- Segurtasuna handitzea izaten da DDR prozesuetan izaten den kezka nagusia -segurtasuna guztiz maskulinoa den ikuspegitik ikusita²¹-. Hala, helburu

²¹ Segurtasunari buruzko tradiziozko pentsamenduak gizonetzkoen mendekotasuneko jarreraren du sorburua eta, jarrera horretan, ez dira aintzat hartzen emakumeen ikuspegiak, bizipenak edo haiek sortutako jakintzak. Nagusi den joera horretan, ez dago lekurik tankera honetako auzitarako: Nork zehazten eta interpretatzen du segurtasuna? Nola definitzen da? Noren segurtasunaz ari gara? (Mendia eta Saillard, [2013]:231).

sozialak bigarren mailan uzten dira baztertua. Emakume borrokalariak beren kidekoak diren gizonak baino mehatxu txikiagoa direla uste denez, sarritan, emakume horien parte-hartzea murriztu da, edo zuzenean utzi dira bazterrean, prozesu horietatik kanpo, adibidez, Mozambiken, edo Sierra Leonan (Bouta, 2005:10).

- DDR prozesuetako parte-hartzaileak hautatzean, talde armatuetako komandanteek borrokalari gisa identifikatu behar dituztenean, gerta liteke komandanteek emakumeak borrokalari gisa sailkatu nahi ez izatea, beren indar militarren benetako tamaina ezkutatu nahi dutelako, arrazoi estrategikoak direla-eta²², edo taldeko kide batzuei abantaila eman nahi dietelako, beste kide batzuen aurretik jarrita (Ball eta Van de Goor, 2006:15), edota giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea hautsi dutelako, adibidez, beren talde armatuetan neskato soldaduak edo esklabo sexualak izan badira (Nazio Batuak, 2006:536)²³.
- Emakumeek aukera gutxiago izaten dute informazio-iturrietarako sarbidea izateko -testuinguru jakin batzuetan, aukera gutxiago dago emakumeek irakurtzen jakin dezaten edo irratia izan dezaten-. Horrek guztiak erabat mugatzen du DDR prozesuei buruzko ezagutza eta prozesu horrek emakumei ekarri ahal dizkien onuren gaineko jakintza (LANE, 2010:75).
- Desarme- eta desmobilizazio-eremuetako segurtasun ezaz emakumeek duten esperientzia edo pertzepzioa, edota DDR prozesuak oro har sorraz dezakeen estigmatizazioari buruzkoa (Bouta, 2005:11; LANE, 2010:75). Bahituak izan diren, soldaduei sari gisa eman zaizkien edo esklabo sexualak izan diren emakumeak ez dira prozesuaren hasieraren zain egoten, eta berehala egiten dute ihes (Bouta, 2005:11). "Ahalik eta ikusezinen" izan nahi dute (Farr, 2002:9) eta, hortaz, beren kabuz desmobilizatzen dira, DDR prozesu arrunt batean parte hartu gabe. Beraiek abiarazten dute

bat-bateko gizarteratzea (Mckay eta Mazurana, 2004). Hala ere, horrek era nabarmenean zail dezake haiek jendartera itzultzeko prozesua (Bouta, 2005:11; Nazio Batuak, 2006:84-85).

Neurri handi batean, DDR prozesuetan emakumeak ikusezin bihurtzeko joera emakumeek oro har politikan parte hartzeko dituzten zailtasunen isla baizik ez da, kasu honetan, zehazki, bakea eraikitze-ko esparruan. Hala ere, Segurtasun Kontseiluaren 1325(2000) Ebazpenak agenda argia eta erabilgarria jarri zuen mahai gainean, emakumeek bakea eraikitze-ko arlo guztietan parte har zezaten sustatzeko eta ebaluatzeko (Nazio Batuak, 2006:522).

Ebazpen horri jarraiki, emakumeek eta emakumeen taldeek ezinbestez hartu behar dute parte DDR prozesuetako esparru guztietan, baita arlo horretako erabakiak hartzeko egituretan eta instituzio nazionaletan ere. Hala, beraz, hori kontuan hartu behar da diseinua eta plangintza prestatzean. Hortaz, alde batetik, emakumeen parte-hartzea eraginkortasunez sustatu behar da, haiek beren burua prozesutik bazterrean utz ez dezaten -adibidez, segurtasun ezagatik edo prozesuak sorrarazten duen estigmatizazioagatik-, eta, bestetik, oztopoak jarri behar dira talde armatuetako buruzagiek edo elite maskulinoek emakumeak prozesu horietatik bazterrean utz ez ditzaten (*Ibidem*:524).

Ondorio gisa, jarraian, DDR prozesuak aztertzean, genero-arloko itsukeriari lotuta dauden funtsezko ideia batzuk nabarmenduko ditugu:

- DDR prozesuaren esparruan, ezinezkoa da emakumeek gizarteratzean jasaten duten ekonomia-, jendarte- eta politika-arloko bazterketaren ondoriozko arazoei aurre egitea, ez eta gatazka ondoko testuinguruan emakumeen aurka dagoen indarkeriari aurre egitea ere, jendarte horretan finkatzen diren genero harremanak kontuan hartu gabe (*Ibidem*:522).
- Lehenik gatazkan eta, gero, DDR prozesuen esparruan emakumeek bete ditzaketan rol ugariak

²² Jokabide hau talde armatu gehienek izaten dute bake-negoiazioen esparruan (Nazio Batuak, 2006:83), eta ondorio garrantzitsuak ditu DDR prozesuen garapenari begira.

²³ Aditzera eman diren kasu batzuetan, talde armatuetako komandanteek berek kendu dizkiete armak emakume borrokalariari, DDR prozesua hasi aurretik, prozesu horretan parte har zezaten galarazteko (Bouta, 2006: 28; Nazio Batuak, 2006:537; Worthen *et al*, 2011:37).

aintzat hartuta, prozesu horiek diseinatzeko eta abiarazteko prozesua ez da inola ere osorik burututa egongo, gizonen interesak, beharrak eta itxaropenak ardatz gisa hartzen badira eta emakumeen ikuspegiari ez ikusia egiten bazaio (Barth, 2002:2).

- DDR prozesuetan generoko azterketarik ez egotea ez da neutrala. DDR prozesuetan abiarazten diren estrategiek, tresnek edo ekimenek jendarte jakin batean, gatazka aurretik, ondoren eta gatazka den bitartean dauden genero roletako eta harremanetako desberdintasunak aintzat hartzen ez badituzte, eta arazo horiei aurre egiteko neurririk hartzen ez badute, orduan, era akritikoan onartu eta kopiatuko dituzte gatazka ondoko jendartearen, berdintasunean oinarrituta ez zeuden aurreko harremanak eta rola (Farr, 2002:8).

3.3. Emakumeen parte-hartzea DDR prozesuetan

3.3.1. Bake-negoiazioak eta DDR prozesuak abiaraztea

Gatazka ondoko bake-negoiazioak oso plataforma egoia dira akordioak negoziatzeko, legeriari, gobernuko egiturei eta jendarteko instituzio desberdinei buruz, hastear dagoen denboraldi berriari begira (Anderlini, 2000:5). Era berean, DDR prozesuei buruzko lehenengo erabakiak bake-negoiazioetan hartu ohi dira eta, beraz, garrantzizkoa da negoziazio horietan parte hartzen duten pertsonen hasieratik konpromisoa har dezaten, hartzen dituzten erabakietan emakumeen interesak eta beharriak ere kontuan hartzeko (Nazio Batuak, 2006:527).

Nazioarteko estandarren arabera, erabakiak hartzeko foroetan, gutxienez, %30ek emakumezkoak izan behar dute (*Ibidem*:528), baina, hala ere, egia esan, gutxieneko ehuneko hori ez da inoiz bete bake-akordioak lortzeko izan diren negoziazioetan²⁴. Gainera, ez da

batere harritzekoa izaten bakea lortzeko negoziazioetan emakume batek ere ez parte hartzea²⁵. Hori historikoki justifikatzeko, gatazka geldiarazteko ardura armak hartu zituzten pertsona horien bizkar dagoela argudiatu da. Argudio hori nolabait onar liteke, etsaitasunekin amaitu ahal izateko, baina nekez onar daiteke gatazka ondoko testuinguruan eraiki behar den egoera berriari buruzko negoziazioetan -une berean egin ohi baitira- (Anderlini, 2000:12), negoziazio horietan emakumeek gizonen bezainbeste hitz egin beharko bailukete.

UNIFEMen azterketa batean (2009), 1992. urtetik aurrera mundu osoan barrena izan diren 21 bake-akordiotan emakumeek izan duten parte-hartzeari buruzko datuak jaso dira. Azterketa horrek oso datu kezka-garriak ditu, besteak beste hauek:

- Bake-akordio horiek sinatu zituzten pertsonen artean, %2,4 baizik ez zen emakumezkoa izan.
- Nazio Batuek babestutako elkarriketatako bitartekarien taldean, ez da emakumerik izan talde horren buru. Hala ere, emakumeek parte hartu dute Afrikako Batasunaren eta beste erakunde batzuen babesaz egin diren elkarriketatako bitartekarien taldean.
- Negoiazioak egiteko ordezkariak eratu zituzten lagun guztien artean, %5,9 emakumeak izan ziren (datuei dagozkien 10 kasuetan).
- Segurtasun Kontseiluaren 1325(2000) Ebazpena onetsi eta gero, emakumeek bake-akordioetan duten parte-hartzea -aurrez aski urria zen parte-hartzea- ez da bereziki igo.

Emakumezko parte-hartzaileen kopurua baino askoz garrantzitsuagoa da argi jakitea ea biderik zabaldu ote den talde feministek, emakumeen taldeek eta, era berean, DDR prozesuetan parte hartzen duten eta onura jasotzen duten emakumeek²⁶ beren eskabideak sartu ahal izan ditzaten agendan. Esperientzia ikusita, bistan dago, emakumeek behatzaile informal gisa parte

²⁴ Negoiazio-mahaietan parte hartzen izan den emakumeen ehunekorik altuena El Salvadorren izan zen, 1992. urtean egindako Chapultepec-eko Akordioan, negoziazio horietan aritu ziren ordezkarietatako kideen %13 emakumeak izan baitziren.

²⁵ Era askotako testuinguruetan izan diren negoziazioko ordezkarietan baita, ez du emakumerik parte hartu, besteak beste, kasu hauetan: Bosnia-Herzegovinan 1995ean (Anderlini, 2002:28; Farr, 2002:10-11), Sierra Leonan 1999an, eta Nepalen 2006an (UNIFEM, 2009:2).

²⁶ DDR prozesua den bitartean zuzeneko laguntza jasotzen duen pertsona hartzen dugu *parte-hartzailetzat*. *Onuradun*, berriz, onurak zeharka jasotzen dituen horri esaten diogu, esate baterako, laguntza jasotzen duen erkidegoko kidea izateagatik laguntza zeharka hartzen duen horri (Escola de Cultura de Pau, 2008:22).

hartu zuten negoziazioetan, emakumeentzat garrantzikoak diren gaiak hartu zituztela barne, esate baterako, hauek: emakumeen giza eskubideen aurkako indarkeria auzipetzea eta ordaintzea -berezi, sexu-indarkeria-, emakumeek gatazka ondoko hauteskundeetan parte hartzeko konpromisoak, eta emakumeen eskubide ekonomikoak eta sozialak (UNIFEM, 2009:1).

Hala ere, negoziazio mahaian eta DDR prozesuak garatu bitartean emakumeek parte hartu arren, horrek ez du ezinbestez bermatzen emakumeen interes eta kezka bereziak eztabaidatuko direnik. Anderlinik trebetasunez aipatzen duenez (2000:32), emakumeak izaten dira genero-arloko auziak negoziazioetan mahai gainean jartzen dituztenak baina, hala ere, politikan aritzen diren emakume askok ez dute inolako interesik emakumeen kezkak edo genero-arloko auziak bultzatzeko. Negoziatioetan parte hartzen duten pertsona guztiek -hala emakumeek nola gizonkezagutza egokiak izan behar dituzte generoko auziei buruz eta, era berean, borondatea izan behar dute DDR prozesuko negoziatioetan hausnarketa horiek eztabaidatzeko eta barne hartzeko (Nazio Batuak, 2006:527-528)²⁷.

DDR prozesua sorrarazten duten negoziatioen ondoren, emakumeen parte-hartzeari buruzko antzeko gogoetak egin daitezke, prozesu hori diseinatzean, planifikatzean eta ezartzean eta, era berean, prozesua betearazteko sortutako egitura nazionalak txertatzean (*Ibidem*:528), adibidez, desarme, desmobilizazio eta gizarteratze batzorde nazionalak txertatzean. Izan ere, DDR prozesu osoan emakumeek parte hartzea, eta parte-hartze hori agerikoa izatea -gizon borrokalariak ikus dezaten emakumeak daudela ardura eta aginteko postuetan-, lagungarria izan daiteke gizonkezkoeen jarrearak desegiteko, eta *botere militarizatu eta maskulinoari* buruz dituzten ideiak eraldatzeko (*Ibidem*:536-537).

3.3.2. Hautagarritasun-irizpideak DDR prozesuetan parte hartzeko

Normalean, bakea lortzeko negoziatioetan erabakitzen da zein taldek eta indar armatuk hartuko duen par-

te DDR prozesuetan, baina, hala ere, prozesu horietan eraginkortasunez parte hartzeko hautagarritasun-irizpideak geroxeago zehaztu ohi dira. Hautagarritasun-irizpideek funtsezko garrantzia dute, haien bidez zehazten baita zein pertsonak izango duen aukera DDR prozesuetan parte hartzeko, eta zein geratuko den bazter utzita. Hortaz, irizpide horiek talde armatu bateko kide izatea hartu behar dute oinarritzat, eta ahalik eta gardenen eta zehatzen izan behar dute (*Ibidem*:83).

Adibidez, hautagarritasun-irizpide gisa, finkatzen badugu borrokalariak 18 urtetik gorako gizonkezkoeak izan behar dutela -pertsona horiek soldaduei buruzko nazioarteko definizioa betetzen baitute (S/2002/1154:16)-, edo ezartzen badugu arma bat eduki eta arma hori erabiltzen jakin behar dutela (Bouta, 2005:6; Nazio Batuak, 2006:531), beharbada, emakume asko utziko dugu bazterrean. Era horretan, agian, nolabait mugatuko dugu emakume askok DDR prozesuetan parte hartzeko duten aukera eta, gainera, galaraziko dugu emakume horiek sarbidea izan dezaten prozesu horietara joateko finkatuta dauden hainbat moldetara.

Hori hala da, talde armatuetan emakumeek era askotako rolak bete ditzaketelako, eta rol horiek guztiak ez daudelako zuzenean lotuta armen erabilerarekin (Nazio Batuak, 2006:529-530; LANE, 2010:74).

- *Emakume borrokalariak*: armak erabiliz, borrokalari aktibo gisa, gatazkan parte hartu duten emakumeak.
- *Taldeen eta indar armatuei elkartuta dauden edo laguntza ematen dieten emakumeak*: emakume hauek era askotako zereginak egin dituzte laguntza emateko, besteak beste, hauek: hornidura eta gerrarako tresneriako eramaileak, sukaldariak, erizainak eta medikuak, espioiak, administrariak, itzultzaileak, irri-irratilariak, harreman publikoak, sexu-langileak, eta abar. Kategoria honetan sexu-esklaboak ere barnebiltzen dira.
- *Mendekoak diren emakumeak*: borrokalari ohi baten familiako kideak dira -familia zentzu zabalean hartuta-, haren mende daude arlo sozialean eta eko-

²⁷ Negoziatioetan parte hartzen duten pertsonen baldintza horiek betetzen ez badituzte, ezinbestez eman beharko dizkiegu prestakuntza eta aholkularitza, hala jendarte zehatz horretan, talde armatuetan eta gatazkako egoeran dauden genero harremanei buruz, nola DDR prozesuak genero harreman horiei eusteko edo errotik aldarazteko duen eraginari buruz (Nazio Batuak, 2006:528).

nomikoan, eta hari jarraitzen diote, talde armatuan sartuta. Besteak beste, hauek hartzen dira barne: emazteak eta bikotekideak, gerrako alargunak, alabak, amak, arrebak eta familia luzeko kideak diren beste emakume batzuk, etab.²⁸

Inguruabarren arabera, beharbada ez da erraza izango emakume jakin batek bere talde armatuan betetzen duen zeregina zein den zehatz jakitea (Ball eta Van de Goor, 2006:13). Ez da erraza, alde batetik, emakumeek era askotako rola bete ditzaketelako gatazkan (Bouta, 2005:9)²⁹ eta, bestetik, kategoriatan sartuko genuke borrokalari baten bikotekidea den baina harekin ezkondu eta dagoen emakume bat, erlijiozko uste sendoak dituen herrialde batean? Eta borrokalari ohi baten emazte guztiak, poligamia baimenduta ez duen herrialde batean?

Emakumeek talde armatuetan betetzen dituzten zereginak zehazteko egon daitezkeen zailtasunak gorabehera, erabaki hori oso garrantzitsua da, hala ikuspegi kuantitatibotik nola kualitatibotik. Alde batetik, ikuspegi kuantitatibotik, egia da benetan arma bat duten eta gatazkan sartzen diren emakumeen kopurua gizonena baino askoz baxuagoa izaten dela baina, hala ere, emakume asko egoten da talde armatuei laguntza emateko zereginak egiten dituzten lagunak talde zabal eta heterogeneoan -gizonak baino askoz ere gehiago (Bouta, 2005:7)- eta, era berean, emakumeak ugariagoak dira talde horietako kideren mendekoak diren pertsonen artean.

Bestetik, ikuspegi kualitatibotik, hainbat arrazoi direla-eta, funtsezkoa da ondo zehaztea, proposatutako kategorien artean, talde armatu bateko emakumeak zein kategoriatan sartuta dauden. Lehenik eta behin, esperientziak ondo frogatzen duenez, talde armatuetako

emakume guztiak ez dutelako prozesuan parte hartzen (*Ibidem*:12), eta haien parte-hartzea estu-estu lotuta dagoelako kategoriatan zein bestean sartzearekin (Nazio Batuak, 2006:523). Bigarrenik, batzuetan, *pertsona borrokalariaren* definizio murriztua egiteko arrazoia ez delako pertsonen talde armatuan egiten dituzten eginkizunen ondorioa, baizik eta DDR prozesuak berak aurrekontu aldetik dituen mugen emaitza (Bouta, 2005:10; Nazio Batuak, 2006:531). Izan ere, horren ondorioz, gerta liteke gatazka ondoko testuinguruaren segurtasuna zalantzan jartzeko gaitasun gutxiagokotzat jotzen diren emakumeak prozesutik kanpo uztea zuzenean³⁰.

Talde armatuan duten zeregina gorabehera, DDR prozesua hasten den unean emakumeek armarik ez badute, beharbada, ez zaie aukerarik emango desarme eta desmobilizazio ataletan parte hartzeko -esate baterako, hala gertatu zen Mozambiken, Timor Lesten eta Sierra Leonan-. Hala ere, armak lehenago baliatu badituzte, armak erabiltzen jakiteko prestakuntza jaso badute, edo gatazkan barrena beren talde armatuaren barruan laguntzeko zeregin funtsezkoak bete badituzte, beharbada, aukera emango zaie desmobilizazio ataletan parte hartzeko.

Azkenik, mendekoak diren emakumeek ez dute desarme eta desmobilizazio prozesuan parte hartuko, baina, haiei dagokien borrokalariaren desmobilizazio prozesuaren ondorioz bizibidea ateratzeko modurik gabe geratzen badira, orduan, beren oinarritzko beharriak bete beharko dira borrokalari horrek prozesuan parte hartzen duen bitartean. Gainera, hala borrokalari ohi nola haren mende dauden lagunak, hala nahi badute, batera parte hartuko dute gizarteratze prozesuan (Nazio Batuak, 2006:84 eta 532).

²⁸ Beharbada, aurrez pentsa liteke kategoriatan hau legez kanpoko talde armatuetan baizik ez dela agertuko baina, egia esan, testuinguru jakin batzuetan, estatuko indar armatuetako soldaduen artean ere agertzen da (adibidez, Kongoko Errepublikako Demokratikoko Indar Armatuaren baitan).

²⁹ Hona hemen, esate baterako, liskar batean zauritua izan ondoren, gatazkan aritzeko ezinduta geratu zen emakume baten kasua: suspertu ondoren, armak konpontzeko eta mantentzeko lanak egiten hasten da talde armatuaren baitan, gero borrokalari baten bikote bilakatzen da, baina, handik hilabete batzuetara, bikotekidea hiltzen da. Talde armatuetako kideak identifikatzen direnean, DDR prozesuan parte hartu behar ote duen erabakitzeko, emakume hori ezindua, talde armatuari laguntza ematen dion laguna eta gerrako alarguna izango da aldi berean.

³⁰ Erabaki honek mezu okerrak bidal ditzake, alegia, DDR prozesuak saria ematen dietela ekintzarik krudelenak egin dituzten edo bortitz eta oldarkorren jokatu duten borrokalariak (Bouta, 2005:13).

4. DDR prozesuetako osagaiak

Oro har, DDR prozesuak gatazka armatuak arindu eta bake-akordioak sinatu ondoren izaten diren aldiak dira eta, haien bidez, borrokalariak izan diren pertsonen armak entregatu, desmilitarizatu, bizitza zibilerantzuzuli eta berriz txertatu behar dute jendartean.

Prozesu horrek era askotako osagaiak hartzen ditu berriz -batez ere, desarma, desmobilizazioa eta gizarateratzea-. Osagai horiek bereizezinak dira (Nazio Batuak, 2006:5:396) eta elkarrekiko mendekotasunean daude (Farr, 2002:18). Hala, beraz, ez du zentzurik modu kronologikoan edo sekuentzian hartzea³¹ (Ball eta Van de Goor, 2006:2; Escola de Cultura de Pau, 2008, 4); modu dinamikoan, osoan eta aldi berean hartu behar dira kontuan³² (Nazio Batuak, 2006:446).

Osagai horietakoren bat gaizki ezarri gero, prozesu osoaren arrakasta egon daiteke arriskuan. Adibidez, desmilitarizatuak borrokalariak (gutxitan armagabetzen baitira erabat), tokiko ekonomian era egokian gizarateratzea lortzen ez badute -hau da, talde armatuetatik kanpo bizitza duina izateko legezko baliabideak aurkitzen ez badituzte-, pizgarri ugari izango dituzte indarkeriari berriz ekiteko.

4.1. Desarma

“Borrokalariak eta, batzuetan, biztanle zibilen arma txikiak, munizioak, lebergaiak eta arma arinak eta astunak biltzea, dokumentatzea, kontrolatzea eta ezabatzea. Armagabetzeko, horrez gain, armak arduraz kudeatzeko programak prestatu behar dira” (Ibidem:21).

Normalean, bake-negoiazioetan adosten diren alderdietan izaten da desarmatze fisikoa. Borrokalari ohiak alderdi horietan biltzen dira, eta armak konfiskatzen dizkiete. Gero, armak markatu, eta toki seguruan biltze gaitzen dira (Anderlini, 2004:126-127) eta, azkenean, armak suntsitzen dira³³, edo gobernu berriari ematen dizkiete, segurtasun nazionalako indarrek erabil ditzaten (Nazio Batuak, 2006:302).

Jasotako armamentu gehiena arma arinak eta munizioa dira eta, neurri txikiagoan, arma astunak. DDR prozesu gehienetan, jasotako armen kopurua baxuagoa da prozesu horietan parte hartu duten lagunen kopurua baino -ehuneko hau izan daiteke: arma bat bost borrokalari; esate baterako, horixe izan zen

³¹ Hori gorabehera, maiz, bake-negoiazioak egiten diren bitartean, DDR prozesuaren kronograma eta egutegia finkatzen da (Anderlini, 2004:126).

³² Hain zuzen, DDR prozesuetako osagaiek duten izaera bereizezin eta erlazionatu hori dela-eta, testu honetan, DDR prozesuko *elementu* edo *osagai* hitzak erabiltzea erabaki ditugu, gaur egun literaturan sarri agertzen diren DDR prozesuko *fase* edo *aldi* hitzak baliatu beharrean (Nazio Batuak, 2006; Ball eta Van de Goor, 2006; Escola de Cultura de Pau, 2008 eta 2009; etab.).

³³ Gatazka ondoko egoera batzuetan, talde feministak eta emakumeen taldeak erabat sartzen dira tartean, jarduera eta gune sinbolikoak antolatze lanetan, adibidez, armak suntsitzeko jendaurreko zeremonietan -gehienetan, hondatuta edo zaharkituta dauden armak baizik ez suntsitzeko (Escola de Cultura de Pau, 2009:9)-. Tankera horretako jarduerak oso bide interesgarriak izan daitezke jendarte horretan batasuna eta adiskidetzeko sustatzeko (Bouta, 2006:29; Nazio Batuak, 2006:540).

Nepalen 2007. urtean jaso zen ehuneko- (Escuela de Cultura de Pau, 2006:28). Beharbada, hori horrela izango da, alde batetik, talde armatu guztietan, kide batzuek ez dutelako borroka egiten eta ez dutelako armamenturik baina, hala ere, kide horiek desmobilitazio prozesuan parte har dezaketelako. Beste aldetik, maiz, talde armatuek zaharkituta edo egoera txarrean dauden armak entregatzen dituzte, baina ia inoiz ez dituzte ematen eskura dituzten arma erabilgarriak, horiek talde armatuaren esku geratzen baitira, bake-prozesuak huts eginez gero erabiltzeko.

Funtsezkoa da ahalik eta arma gehien eraginkortasunez biltzea eta suntsitzea, alde batetik, gatazka berriz piztuz gero³⁴ arma horiek berriz erabil daitezen saihesteko edo, merkatu ilegalaren bidez, beste gatazka batean balia daitezen galarazteko; eta, bestetik, desarme prozesua oso lagungarria izango delako gatazka ondoko segurtasun eza eta indarkeria-maila gutxitzeko (Anderlini, 2004:127). Orain arte abian jarri diren DDR prozesuetan, nola-halako kontrol eza egon da, eta ez da entregatutako armen jarraipenik egin (Escuela de Cultura de Pau, 2008:28).

Hainbat eragilek baldintzatzen dute desarme prozesuaren arrakasta, besteak beste, hauek: gatazkaren inguruabarrek, armagabetu behar den talde armatuak duen diziplinak, edo armak borrokalarien bizibide bilakatu ote diren. Armada erregularrei edo egitura militar diziplinatuei dagokienez, desarme prozesua sistematikoa izan daiteke, gutxi gorabehera, eta ez du arazo handirik sorrarazi behar. Hala ere, gatazka gehienetan -batez ere talde armatu asko badaude eta/edo borrokalariak oso ondo heziak ez badira-, litekeena da prozesua korapilatzea.

Bestetik, hasiera batean, beharbada, borrokalariak ez dute armak emateko gogo handirik erakutsiko, segurtasun eza dela-eta -edo haiek pertzepzio hori dutelako-, edota mobilizaturik emandako denboran armak izan direlako

bizirik irauteko eta sozializatzeko -batez ere, gizonezkoen sozializazioarako (Farr, 2002:20)- izan duten baliabide nagusia. Hortaz, armei uko egin diezaiten lortzeko, konfiantza, gutxieneko segurtasun baldintzak eta bermeak eskaini behar dizkiegu; indarra erabili gabe bizirik irauteko bitartekoak eskuratu ahal izateko bermeak.

Desarmatzeko prestatutako lekuetan, emakume borrokalariak ematen duten informazioa -talde armatuak dituen armen kopuruari eta motari buruzko eta ezkutaturik egon daitezkeen armei buruzko informazioa- oso baliagarria izan daiteke. Era berean, erkidegoetako emakumeek duten informazioa erabilgarria izan daiteke: ba ote diren eta non dauden borrokalari ohiak diren emakumeak, talde armatuei laguntza ematen dieten emakumeak, edota DDR prozesuak bazter utzita beren kabuz desmobilitatzea erabaki duten borrokalari ohien mende dauden emakumeak (Nazio Batuak, 2006:539).

DDR prozesuetan, borrokalariak dira desarmearen ardatza (*Ibidem*:302). Hala ere, goian aipatu dugunez, talde armatuek bazter uzteko modukotzat jotzen dituzten armak baizik ez dute entregatuko; eta, beraz, desarmea sustatzeko beste estrategia batzuk jarri behar dira abian, alderdi gehiago barne hartzen dituzten³⁵, jendartean eraldaketa sakonagoak sorraraz ditzaketen (Escuela de Cultura de Pau, 2006:28-29) eta jendarte osoaren parte-hartzeaz gauzatuko diren estrategiak.

Ezin da alde zuzenetik pentsatu jendarte zibilaren barruan emakumeak eraginkortasun handiagoz azalduko direnik armak egotearen -edo ugaltzearen- aurka. Hala ere, esperientziak argi frogatzen du emakumeak direla oso armatuta dagoen gatazka ondoko jendartearen ondorioak latzen pairatzen dituztenak (Anderlini, 2004:128). Gainera, Farr-ek dioenez (2002:21), emakumeek nolabaiteko arrakasta izan dezakete, tokiko esparruan -eta, batez ere, esparru pribatuan- hartutako erabakietan eragina izateko. Hala ere, askotan, instantzia informaletan

³⁴ 2008. urtean, *Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoak* izeneko taldeko kide desmobilitatuek salaketa larria egin zioten Nazio Batuek Kongoko Errepublika Demokratikoan zuten eta desarme prozesua zaintzeko ardura zuen Misioko langileei (garai hartan, MONUC deitzen zen, eta gaur egun, berriz, Monusco da): armagabetu ondoren, berriz saldu zizkietela armak talde armatu horri (Escuela de Cultura de Pau, 2009:9).

³⁵ Gero eta sarriago, desarme mota honetako estrategiek DDR tradiziozko prozesua dagoen bitartean eta haren ondoren irauten dute, adibidez, pizgarrien truke armak emateko prozesuen bidez: *Garapena armen truke* izeneko programen bidez. Neurri hori bigarren belaunaldiko DDR prozesua deitutakoan sartuta dago. Hari jarraiki, armak entregatzen dituzten borrokalarien erkidegoei zuzenean ematen zaizkie, sari gisa, beren beharrianetara ondo egokituta dauden garapen-proiektuak (eskolak, ur-putzuak, hazien bankuak), borrokalariak zuzenean eman beharrean (Nazio Batuak, 2010b:34).

baizik ez dute izaten eragina, ez dutelako aukerarik izaten erabakiak hartzen diren guneetara sartzeko.

4.2. Desmobilizazioa

“Indar armatuetan edo beste talde armatu batzuetan jardunean dauden borrokalariei era ofizialean eta kontrolpean baja ematea. Desmobilizazioaren lehenbiziko aldian, lehenik, banakako borrokalariek auzipetu eta aldizkako zentroetan sartzen dira eta, azkenean, tropak metatzen dira, xede horretarako prestatutako kanpamenduetan (gudariak egokitzeko lekuak, kanpamenduak, kontzentrazio esparruak edo kuartelak deitutakoetan). Desmobilizazioaren bigarren aldian, berriz, desmobilizatutako borrokalariei laguntza emateko egin beharreko jarduera guztiak hartzen dira barne, eta prozesuari birgizarteratzerako hasierako laguntza esaten zaio” (Nazio Batuak, 2006:21).

Desmobilizazio prozesuaren lehen xedea da borrokalaria eta bera azpiratuta izan duen talde armatuaren aginte-egitura bereiztea. Horretarako, borrokalariei kopurua osorik -legez kanpoko talde armatuetan- edo zati batean murriztu behar da -estatuaren beharriaz- begira beharrezkotzat jotzen bada, indar armatu erregularretan-. Era horretan, borrokalariek haien izaera militarra utzi, eta estatus zibila hartuko dute (*Ibidem*:392).

Prozesu fisikoaz gain -hau da, aurreko aginte-egiturarako borrokalaria ohiak bereizteaz gain-, desmobilizazioaren esparruan, osagai psikologikoa ere agertzen

da (*Ibidem*:392). Normalean, konplexuagoa eta epe luzekoa izaten da, desmobilizatutako borrokalaria ohia behar bezala prestatu behar baita jendartean dagokion tokia aurki dezan, talde armatuaren egituraren laguntzatik kanpo.

Farr-ek dioenez (2002:21-22), gero eta sarriago, desmobilizazio prozesua behar bezala egokitzen zaie tartean egon daitezkeen egoera heterogeneoei, hala talde armatuetan daudenei -askapen nazionalerako mugimenduetan, milizietan, indar armatu nazionaletan, gerriletan, etab.-, nola talde horien barruan, sexua (emakumeak eta gizonak), adina (neska-mutil soldaduak eta helduak), edo beharrian fisikoak eta psikologikoak aintzat hartuta daudenei (borrokalaria osasuntsuak, elbarriak, buru-nahasmendua dutenak, etab.).

Normalean, borrokalaria ohiak kantonatzeko gune berezietan multzokatzen dira³⁶, aurreikusita dauden jarduerak egiteko behar beste denboraz multzokatu ere³⁷. Ahalegina egiten da kantonatuta eman beharreko denbora ahalik eta gehien laburtzeko³⁸, segurtasun eta bertaratze-arloko arazoak saihesteko (Anderlini, 2004, 127), borrokalaria ohiak ez gogogabetzeko, eta kostuak murrizteko (Escola de Cultura de Pau, 2008:29). Denbora horretan, hainbat jarduera egiten dira, besteak beste, hauek:

- Borrokalaria ohiak identifikatzea³⁹ eta errolda egitea. Prozesuan parte hartzeko hautagarritasun-irizpideak betetzen diren egiaztatze aukera emateaz gain, une horretan lortzen den informazioa datu-base seguru batean sartu behar da, sexuen

³⁶ Batzuetan, horretarako baldintza egokiak izanez gero -borrokalariei talde txikiak eta diziplinatuak egotea, gune zehatz batean baizik ez egotea, desmobilizatutako borondate sendoa izatea, etab.-, desmobilizazioa gauzatzeko era egokia izan daiteke desmobilizazio mugikorrekotzat guneak erabiltzea, hau da, borrokalaria ohiak dauden tokietan kokatzen diren zentro ibiltariak (*Ibidem*, 2006:398).

³⁷ Bake-negoziatioetan finka daiteke gune horien kokapena zein izango den. Nolanahi ere, gune seguruak eta iritsi-errazak izango dira desmobilizatutako taldeentzat, eta indar neutralen kontrolpean egongo dira. Normalean, indar neutralak nazioartekoak izango dira, adibidez, Nazio Batuek bakeari eusteko dituzten indarrak (*Ibidem*:394).

³⁸ 2007. urtean abiarazitako DDR prozesuetako datuen arabera (Escola de Cultura de Pau, 2008:29), egonaldi horren iraupena oso aldakorra izan daiteke: egun bakar batekoa (Afganistan) edo bi asteak (Ruanda). Muturreko kasuetan, egonaldia hainbat hilabetez luzatu da; esate baterako, hala gertatu da, noiz edo behin, Kongoko Errepublika Demokratikoan.

³⁹ Identifikazioa egiteko, elkarrizketa pertsonala egiten zaie borrokalariei, era horretan ondo jakin baitaiteke pertsona horiek desmobilizatutako bete behar diren baldintzak betetzen ote dituzten. Elkarrizketa hori pertsona guztiak egin behar diegu -gizonei zein emakumei-, banan-banan, eta isilpekotasuna behar bezala bermatuta. Elkarrizketatuaren sexu berekoak diren pertsonak egin behar diote elkarrizketa, eta elkarrizketaren edukia ondo egokitu behar da, gizonek eta emakumeek dituzten bizipen desberdinak, eta, era berean, genero rola eta harremanak aintzat hartuta. Sexu-indarkeria pairatu duten pertsonen laguntza eskaini behar zaie, baita lor ditzaketen babes judizialeko modu guztiak buruzko informazio berezia ere (Nazio Batuak, 2006:537).

arabera bereizita, horrela, emakumeen esperientziak, interesak eta itxaropenak behar bezala jaso ahal izateko (Farr, 2002:25)⁴⁰.

- Oinarrizko beharrianak betetzea (elikadura, jantziak, osasun-laguntza, etab.) eta haien egoera fisikoa eta psikologikoa ebaluatzea.
- Beren beharrianei eta itxaropenei buruzko orientabidea ematea eta, era berean, beren profil soziolaborala eta gizarteratzeko dituzten aukerak zehaztea (hezkuntza, lanbide-heziketa, enplegua), besteak beste.
- Desmobilizazio ziurtagiria ematea, horrek DDR prozesuan parte hartzen jarraitzeko egiazta ditzan.
- Kasu batzuetan, jatorrizko lekura edo harrerako erkidego berrira eramatea.

Bestalde, jarduera horiek guztiak egin bitartean, ezinbestez egin behar zaie arreta emakumeek dituzten beharrian bereziei; adibidez, emakumeak gune berezitan kantonatu behar dira, gizonengandik bereizita (Bouta, 2006:28)⁴¹. Era berean, emakumeen segurtasuna kolokan egon daitekeela joz gero, gizonengandik bereizita garraiatu behar dira. Gainera, osasun-arloan dituzten beharrian zehatzak bete behar dira -adibidez, ugalketari edota genero- edo sexu-indarkeriari⁴² lotuta daudenak-. Bestalde, haurrak zaintzeko zerbitzuak eskaini behar dira, emakumeek prestakuntza eta gainerako zerbitzuak jaso ahal izan ditzaten. Bestela,

zerbitzuak behar bezala egokitu beharko dira, haurren ardura emakumeen bizkar egon ohi dela aintzat hartuta, eta abar (Nazio Batuak, 2006:531 eta 538).

Desmobilizatzeko prozesuan arazoak izaten dira noiz-behinka; hona arazo horien arrazoiak zein diren: aurretiazko plangintza eskasa (adibidez, parte hartzen duten borrokalariei kopurua ez jakiteagatik), kantonatzeko guneak dituzten mugak (higiene eta segurtasun eza -batez ere, desmobilizatutako emakume borrokalariei dagokienez⁴³-, baliabide materialen gabezia, gaitzen hedapena, tirabirak, liskarrak etab.)⁴⁴, edota baliabide ekonomikoen eskasia, borrokalariei hitz emandako ordainketak egin ahal izateko. Horren ondorioz, matxinadak piztu daitezke, edo borrokalaria ohiek uko egin diezaioke kanpamendua uzteari (Escola de Cultura de Pau, 2008:29).

Batzuetan, kantonatzeko aldiak, prestakuntza eta sentsibilizazioko ikastaroak eskaintzen dira (GIB/HIESA, giza eskubideak, bake-prozesuaren garapena, genero-arloko gaiak, sexu-indarkeria eta beste gai batzuk lantzeko). Aukera egokia izan daiteke hori desmobilizatutako borrokalariek -gizonek nahiz emakumeek- gai horiei buruz duten kontzientzia pizteko. Are gehiago, kantonatzeko garaian, giza eskubideei buruzko sentsibilizazio zabalago baten esparruan, gizon borrokalaria ohiek ezinbestez jaso beharko lukete emakumeen eskubideei buruzko sentsibilizazioa eta prestakuntza -besteak beste, autonomia pertsonala izateko duten eskubideei buruzkoa-, bai eta emaku-

⁴⁰ Elkarrizketa honetan lortzen dugun informazioa oso baliagarria izan daiteke desmobilizatutako pertsonen gizarteratze-prozesuaren jarraipena egiteko, DDR prozesua oro har ebaluatzeko, eta giza eskubideen urraketa jakin batzuen jazarpena bultzatzeko -esate baterako, sexu-indarkeriarena- (*Ibidem*), betiere, instantzia judizial arruntekin edo -hala behar denean- gatazka ondoko aldiak egituratzen diren trantsizioko justiziako mekanismoekin harremanetan jarrita.

⁴¹ Gudariak egokitzeko guneetan, emakumeek aukera izan behar dute gizonengandik bereizita erregistratzeko, eta banakako txartelak jaso behar dituzte, beren bikotekideekin edo, mendekoak badira, haiei dagokien borrokalaria ohiarekin loturarik ez duten txartelak, alegia. Izan ere, era horretan, agian, emakumeen segurtasuna eta autonomia handituko ditugu, batez ere, sexu-esklaboak izan diren edo behartuta borrokalariekin ezkondu egon diren emakumei begira. Era berean, familiei elkarrekin jarraitzeko aukera eman behar zaie, hala nahi badute (*Ibidem*:538).

⁴² Adibidez, azterketa ginekologikoak egitea, tanpoiak, konpresak, edo gizon eta emakumezkoentzako kondoiak banatzea eta beste zerbitzu batzuk eskaintzea (*Ibidem*:531).

⁴³ Worthen *et al* (2011:37) lanean, kasu berezi hau dago jasota: Ugandako Jaunaren Erresistentziako Armada eratzen zuten emakumeek sexu-indarkeria pairatu zuten kantonalekuetako etxola handietan, desmobilizazio prozesuan. Garrantzi handikoa da emakumeak eroso eta seguru senti daitezen, kantonalekua utzi eta beren kabuz desmobiliza daitezen saihesteko. Izan ere, testuinguru batzuetan, horixe gertatu da. (Nazio Batuak, 2006:537).

⁴⁴ Ahal den neurrian, gomendioa egiten da kantonalekuetan borrokalaria ohien kopuru urria hartzeko. Horrela, errazagoa izango da haiek kudeatzea, kontrolatzea, eta haien segurtasuna bermatzea (*Ibidem*:396). Era berean, desmobilizatzeko prozesua hainbat alditan egin behar da (Escola de Cultura de Pau, 2008:29), prozesu horren bilakaera aztertu ahal izateko, ikasitako irakasgaiak aplikatzeko eta prozesua hobetu ahal izateko.

meen aurka indarkeria erabiltzeak -batez ere, sexu-indarkeria- dituen ondorio penalei buruzko informazioa ere.

4.3. Birgizarteratzerako hasierako laguntza

“Desmobilizatzeko garaian, baina epe luzeko gizarteratze prozesua hasi aurretik, borrokalari ohiei ematen zaaien laguntza⁴⁵. Birgizarteratzerako laguntza hau laguntza-modu iragankorra da. Haren bidez, borrokalari ohien eta haien senideen oinarritzko beharrianak bete nahi dira. Ildo horretan, diru-laguntzak, elikagaiak, jantziak, etxebizitzak, osasun-zerbitzuak, hezkuntza -epe laburrean-, gaitzuntza, enplegua eta tresnak ematen zaizkie aldi baterako. Gizarteratze prozesua garapen soziala eta ekonomikoa lortzeko epe luzeko prozesu jarraitua da. Birgizarteratzerako hasierako laguntza, berriz, epe laburrean emandako laguntza materiala edo finantzazkoa da -edo bi motatakoa-. Haren bidez, premiazko beharrianak bete nahi dira, eta gehienez urte betez eman daiteke” (Nazio Batuak, 2006:34).

Talde armatuak desmobilizatzean, taldeko kideek ordura arte bizirik irauteko izan duten baliabidea galtzen dute -batzuetan, beren bizitza osoan edo beren bizitzako zati handi batean izan duten baliabide bakarra-. Horiek horrela, birgizarteratzerako hasierako laguntza honetan, aldi baterako laguntza eman behar zaie desmobilizatutako borrokalariari -eta haien familiei edo haien mende dauden lagunei, horrelakorik badago-,

hautatu duten erkidegora itzul daitezten, eta oinarritzko beharrianak bete ditzaten, birgizarteratzearen hasierako fasea erabat burutu arte (Escola de Cultura de Pau, 2008:30).

Horrenbestez, laguntzak ematen dira, hala laguntza ekonomikoak⁴⁶ -ordainketa bakarrean edo zatitutako ordainketetan denboraldi jakin batez-, nola materialak -elikagaiak, jantziak, haziak, nekazaritzako eta sukaldeko lanabesak, etab.- (Anderlini, 2004, 127; Escola de Cultura de Pau, 2008:29; Nazio Batuak, 2010b:27). Horren ondorioz, proportzioan, atal hau izaten da DDR prozesu osoan baliabide ekonomiko gehien eskatzen duena. Gizarteratze prozesuak aurrekontu osoaren %60-80 inguru hartzen du⁴⁷.

Borrokalari ohiak birgizarteratzeko hasierako laguntza hauek eta gizarteratzeko eskaintzen diren laguntzei dagokienez, alde batetik, generoko estrategiak hartu behar dira kontuan, gizon eta emakumeei onura zuzentasunez eman ahal izateko eta, era berean, familiako unitatearen baitan baliabideak bidezko eran banatuko direla bermatzeko (Nazio Batuak, 2006:534)⁴⁸. Horrez gain, beste aldetik, laguntzak ordaintzeko moduak emakumeei begira izan ditzakeen ondorioak eta beharrik hartu behar dira aintzat. Adibidez, ondo aztertu behar da emakumeek dirua kudeatzeko dituzten tradiziozko moldeak betetzen ote diren. Horrez gain, zuzeneko laguntza ekonomikoak ematen direnean, arretaz ebaluatu behar da laguntzak eskudirutan ordaintzea arrisku gehigarria izan ote daitekeen emakumeentzat (*Ibidem*:535).

⁴⁵ Iturri batzuen arabera (Nazio Batuak, 2006), birgizarteratzeko hasierako laguntza honen jarduerak DDR prozesuaren esparruan egiten dira (izan ere, praktikan, kantonalekuetan egin ohi dira, edo, bertan abiarazten dira, besterik ez bada ere -laguntza ekonomikoen ordainketa denboran barrena luza daiteke-eta-). Beste iturri batzuen ustez, berriz, jarduera horiek gizarteratzeko prozesuetako osagaiak dira (Ball eta Van de Goor, 2006; Escola de Cultura de Pau, 2008). Nolanahi ere, DDR prozesuaren izaera bereizezina eta erlazionatua babesten duen jarreratik aztertuta, eztabaida horren garrantzia ez da oso handia.

⁴⁶ Borrokalari ohiei ematen zaaien laguntza ekonomikoa aski gai eztabaidatua da, hala birgizarteratzerako hasierako laguntza, nola gizarteratze prozesu osoan emandakoa. Oso neurri erraza da ezartzeko, lagungarria da prozesuak aurrera egin dezan, ekonomia berpizten du, eta harrerako familiek eta erkidegoek egin behar duten ahalegina era nabarmenean arintzen du. Hala ere, emankorra ez den gastua bultzatzeak, armen eta drogen merkatua eta prostituzioa susta ditzake, eta bidegabekeria eta erresumina piztu ditzake biztanle zibilen baitan, beharbada, biztanle zibilek zera pentsatuko baitute: borrokalari ohiek, izandako jokabidearen ondorioz, zigorra jaso ordez, saria jasotzen ari dira (Escola de Cultura de Pau, 2008:32).

⁴⁷ 2007. urteko datuen arabera (*Ibidem*:4). Desarme- eta desmobilizazio-osagaiek %6 eta %10 artean eskatzen dute; eta, azkenik, talderik ahulenean -besteak beste, emakumeek, haurrek eta ahalmen urrikoek- %5 eta %10 artean eskatzen dute.

⁴⁸ Esperientziak erakusten duenez, beren kargura lagunak dituzten gizon borrokalari ohiek, batzuetan, arduragabeki erabiltzen dituzte eskaintzen zaizkien laguntzak -gehienbat esku-dirutan ematen baitzaizkie-, haien mendean dituzten lagun onerako baliatu beharrean. Emakumeek, berriz, sarriago erabiltzen dituzte laguntza horiek mendekoak diren pertsonen laguntza emateko eta beren erkidegoak garatzeko (Nazio Batuak, 2006:534; LANE, 2010:74-75).

4.4. Gizarteratzea

“Prozesu honen bidez, borrokalari ohiek izaera zibila hartzen dute, eta enplegu iraunkorra eta diru-sarrerak lortzen dituzte. Gizarteratzea prozesu soziala eta ekonomikoa da funtsean, esparru kronologiko irekia du eta, lehenik, toki-esparruko erkidegoetan jartzen da abian. Herrialdearen garapen orokorraren zati bat da, erantzukizun nazionala baita eta, askotan, kanpoko laguntza behar izaten du epe luzean” (Ibidem, 2006:34).

Gizarteratze prozesuaren bidez, desmobilizatutako pertsonak zibil gisa itzultzen dira berriz jendartera. Bertan, bide berri bat aurkitu behar dute bizirik irauteko, eta indarkeria alde batera uzten duen bizimodua berreskuratu behar dute (Anderlini, 2004:127). Urte luze egitura militar hierarkiko eta zorrotzen barruan bizi ondoren, borrokalari ohi askok -batzuetan, dozenaka mila borrokalari ohi egon daitezke egoera horretan aldi berean- errealitate berri bati egin behar diote aurre eta, errealitate horretan, beren premiak ez dira kanpotik asebeteko, funtsean, beraiek arduratu behar ko baitute behar horiek betetzeaz (Farr, 2002:25).

Prozesu konplexua, luzea eta alderdi askokoa da -oso esparru desberdinak hartzen baititu barne: ekonomikoa, soziala, politikoa eta psikologikoa-. Hortaz, harrera egingo duten familien eta erkidegoen sostengua behar da ezinbestez⁴⁹. Egia esan, hainbat urrats egin da -nahiz oraindik aski ez izan- *borrokalari ohia ardatz gisa hartzen duen gizarteratze* prozesuaren ikuspegi tradizionala osatzeko (Nazio Batuak, 2006:444-445; Escola de Cultura de Pau, 2008:30). Izan ere, tradiziozko ikuspegiari jarraiki, borrokalari ohia mehatxu bat da epe luzeko segurtasunari begira, eta banakako irtenbideak bilatzen ditu -batez ere, arlo ekonomikoan-. Ikuspegi hori *gizarteratze komunitarioko prozesuarekin* osatu

nahi izan da. Azken hau, ikuspegi barneratzaileagoa da, parte-hartzean oinarrituago dago⁵⁰. Bereziki narbarmentzen du harrerako erkidegoak gizarteratzeko izan dezakeen indarra, eta erkidegoa ahalduntzea ere sustatzen du (Caramés, 2006)⁵¹.

Borrokalari ohiak gizarteratzeko prozesua askoz zabala goa eta konplexuagoa den prozesu baten barruan dago, gatazka ondoko jendarterako taldeak adiskidetzeko baitu helburu. Borrokalari ohiez eta talde armatuetako kideez eta haien mendekoak diren gainerako pertsonen gain, adiskidetzeko prozesuak beste talde batzuk hartzen ditu barne, hala nola, hutsetik hasi behar duten taldeak -barruko lekualdatuak eta iheslariak-, harrerako erkidegoetako pertsonak eta, azkenik, jendarte osoa oro har. Talde horietako kideek oso bizipen desberdinak izango dituzte gatazkari buruz eta, ildo horretan, era desberdinetako laguntza beharko dute beren bizitza berreraikitzeke. Jakina, helburu hori oso handinahia da, eta DDR prozesu batek dituen xedeak gainditzen ditu. Nolanahi ere, prozesu horrek hainbat estrategia eta jarduera eduki beharko ditu, gizarteratze prozesuan barrena adiskidetzeko bultzatzeko (Nazio Batuak, 2006:460).

4.4.1. Gizarteratze ekonomikoa

Zabal hedatuta dagoen ideia baten arabera (Nazio Batuak, 2006:453; Escola de Cultura de Pau, 2008:30), *gizarteratze* prozesuan dauden borrokalari ohiek sumatzen ez badute izaera zibil berriak aurreko izaerak baino bizitza-baldintza hobek eskainiko dizkiela, arriskua dago borrokalari ohiek prozesua bertan behe- ra utz dezaten eta armak berriz har ditzaten -talde armatu berean edo hiltzaileen beste talde batean-. Ideia horretan oinarri hartuta, borrokalari ohiei baliabide ekonomikoak ematen dizkieten programak sustatzea oinarritzko kezka bilakatu da DDR prozesuetan.

⁴⁹ Ahalik eta prozesurik barneratzaileak abiarazten baditugu, eta biztanleek prozesu horietako partaide direla senti dezaten lortzen badugu, alde batetik, benetako aukerak aurkeztu ahal izango dizkiegu borrokalari ohiei eta, bestetik, zurrumurruak edo informazio faltsuak ager daitezten zaildu edo galaraziko dugu, horiek prozesuekiko mesfidantzak edo jarrera txarrak sorraraz baitituzakete (Nazio Batuak, 2006:397).

⁵⁰ Gizarteratze komunitarioko prozesuan, komunitateak prozesu osoan hartzen du parte: hala bere beharrianak identifikatzean eta zehaztean, nola *gizarteratzeko* prozesura bideratu beharreko baliabideak finkatzean (Escola de Cultura de Pau, 2008:30). Hortaz, txikiagoa da erkidegoaren eta borrokalari ohien ongizate-sentsazioaren arteko desoreka eta, era berean, erkidegoko biztanleek ez dute hain argi uste borrokalari ohiak saria jasotzen ari direnik DDR prozesuan barrena.

⁵¹ *Gizarteratze* komunitarioko prozesua bereziki interesgarria izan daiteke DDR prozesuetako parte-hartzaile batzuentzat, adibidez, ama ezkongabeentzat (Worthen *et al*, 2011:42).

Baliabide horiek ekonomia-, jendarte- eta kultura-ingurune desberdinetara egokitu behar dira, eta bidezko eran eman behar diete onura hala gizonen nola emakumeen. Besteak beste, baliabide hauek erabil daitezke:

- Hezkuntza, batez ere 15 urtetik beherakoei eta eskolarazeko urteak talde armatuetan sartuta eman dituzten borrokalari ohiei dagokienez (Nazio Batuak, 2006:454).
- Lanbide-heziketa, nola-halako gaikuntza eskaintzeko, eta, horrekin batera, lanpostua eskuratzeko benetako aukerak izateko (*Ibidem*)⁵².
- Bekak, oso urriak eta, normalean, talde armatuetako ofizialei edo buruzagiei mugatuta (Anderlini, 2004:127).
- Laneratzeko zerbitzuak.
- Mikroenpresak eta negozio txikiak sortzea sustatzea.
- Mikrokreditoak; baina, beharbada, ez dira aukerarik onena gizarteratze prozesuaren hasierako uneetan, kredituak ematean hartzen diren betebeharre lotzeko “gaitasun gutxien duen jendarteko taldeetako bat” direlako borrokalari ohiak (Nazio Batuak, 2006:455)⁵³.
- Lurrak ematea.
- Etxebizitzak eskuratzeko lehentasuna izatea.
- Enplegua bilatzea edota enplegu publikoak ematea⁵⁴, esate baterako, Estatuko segurtasun-indarretan⁵⁵, edo gatazka izan den bitartean kaltetutako azpiegiturak konpontzeko lanetan (Escola de Cultura de Pau, 2008:30).

Gatazka ondoko egoeretan oso ohikoa izaten da lurra eskuratzeko gatazkak piztea. Oro har, borrokalari ohiak beren etxeetara itzultzea erabakitzen dute (Nazio Batuak, 2002:458). Maiz, landa-guneetara jotzen dute, nekazaritza edo abeltzaintzako lanetan jarduteko; eta, horretarako, ezinbestekoa da lurra eskuratzeko modua izatea. Hala ere, beharbada, beren lurralde-lurrik bazuten- beste norbaiten esku egongo dira; edo alderdi jakin batera itzultzen direnean, agian barneko lekualdatuak edo iheslariak horra itzultzen egongo dira une berean. Hala, beraz, *lebian* aritu behar du horiekin guztiekin -eta erkidego horietakoak diren lagunekin-, lurra eta beharbada aski urriak izango diren beste baliabide batzuk eskuratzeko (ura, haziak, baliabide mineralak eta abar). Gainera, gerta liteke ohiturazko zuzenbideak edo zuzenbide konbentzionalak lurraren jabe izateko aukera galaraztea emakume borrokalariari (Bouta, 2006:31)⁵⁶.

Hiriguneetan, beharbada, mespretxuz hartuko dute emakumeek talde armatuetan egindako lanaren esperientzia, desmobilizazio garaian meritu horiek behar bezala egiaztatu ez zizkietelako, lan horiek tradiziozko rolekin bateraezinak direlako, edo emakumeentzat ez-egokitzat hartzen direlako (LANE, 2010:75), edota jendarteak aurre egiten diolako emakumeak lan-esparru berrietan sar daitezzen onartzeari, etab. Horren ondorioz, emakumeek gatazkak iraun duen bitartean eskuratu dituzten jakintza eta trebetasun asko ez dira behar bezala ustiatzen (Bouta, 2006:29). Hala, emakumeek ezinbestez egin behar dute lan sektore informalean, gaizki ordaindutako edota onespene eskaseko lanpostuetan -ehungintzan, lantegietan (LANE, 2010:75)- eta babes sozialik gabe; eta, batzuetan, bazterrekoak eta batere seguruak ez diren

⁵² Kontuan izan behar dugu emakumeek eta neskek hezkuntza eta lanbide-heziketako maila baxuagoa izan ohi dutela, eta ordainketa kaskarragoa duten lanetarako egoten direla gaituta. Horiek horrela, baliabide gehigarriak bideratu behar dira, emakumeak eta neskek alfabetatzeko, eta hobeto ordainduta dauden lanetarako gaitzeko (LANE, 2010:75). Horrez gain, emakumeek eta neskek askatasuna izan behar dute zein motatako prestakuntza jaso nahi duten erabakitzeko (Bouta, 2006:30; LANE, 2010:75).

⁵³ Hala ere, Nazio Batuek (2006:535) aukera hau gomendatzen dute emakumeen begira, alde batetik, berreraikitze-lanetako inbertsioek oso ondorio onak izaten dituztelako eta, bestetik, itzulketen ehunekoa oso hazia delako.

⁵⁴ Gobernuak erabiltzen dute borrokalari ohiak enplegu publikoak eskaintzeko estrategia, gizarteratze programek porrot egiten dutenean, lan egonkorra izateko aukerak sortzeko xedeari begira (*Ibidem*:455).

⁵⁵ Adibide honek argi erakusten du DDR prozesuaren eta antzeko beste prozesuaren artean egon daitekeen lotura -esate baterako, kasu honetan, segurtasunaren sektorearen erreformaren-, bakea eraikitzeko esparru zabalagoan.

⁵⁶ DDR prozesuak laguntza eman behar du, hala behar den tokian, legetan aldatuak egiteko eta, era horretan, emakumeak lurraren jabe izan daitezken errazteko. Horrez gain, zuzeneko laguntza eman behar du liekete emakume borrokalari ohiak, beren jabetza-eskubideak babesteko (*Ibidem*:259).

jarduerak egin behar izaten dituzte, adibidez, prostituzioa (Farr, 2002:30). Hortaz, bada, emakumeek *ekonomiaren ertzetan* egon behar dute nahitaez (Bouta, 2006:30).

Emakumeak ekonomia arlotik mailaz maila bazterretzeko dagoen joeraren ondorioz -batez ere, gatazkan mendekotasun gehiago izan zuten emakumeek, esate baterako, borrokalari ohien laguntzaileak edo emakume alargunak-, areago kontrolatzen da emakumeek mugitzeko duten askatasuna, eta gizonek emakumeak mendean hartzeko duten estrategia eraginkorrenetako bat da (Farr, 2002:28). Hortaz, ekonomikoki gizarteratzeko neurriek, kultura-arloan egokiak izan arren, ez dituzte inola ere emakumeak lan tradizionala egitera murriztu behar (LANE, 2010:75). Era berean, neurri horiek ez dute generoko estereotiporik indartu behar (adibidez, etxea *hornitzen duena gizonetzkoa* dela pentsatzea). Aitzitik, lagungarriak izan behar dute emakumeen independentzia ekonomikoa sustatzeko (Nazio Batuak, 2006:535).

Gizarteratze ekonomikoa lortzeko, begirunez jokatu behar da borrokalari ohiei harrera egingo dieten erkidegoekin, eta behar bezala bermatu behar da batzuen eta besteen ongizatearen arteko oreka (*Ibidem*:397). Borrokalariak gatazka ondoko jendarte jakin batzuetan gizarteratzen dira, hain zuzen, baliabide ekonomiko urri eta enplegu gutxi duen, eta aktore armatuen ekintzaren ondorioz gatazkak iraun duen bitartean asko sufritu duen biztanleria zibila duen jendartean. Horiek horrela, borrokalari ohiek egin zituzten ekintzak eginda, zigorra jaso ordez, *saria* jasotzen badute, beharbada, erkidego horiek bidegabeki tratatzen dituztela sentituko dute, edo haiekin erresuminduta daudela pentsatuko dute (*Ibidem*:427 eta 449)⁵⁷.

Era berean, talde armatuek eragindako indarkeria pairatu duten barruko lekualdatuek eta iheslariek gizarteratze prozesu bati ekin behar diote gatazka ondoko testuinguruan, borrokalari ohien moduan eta, hala ere, askoz ere laguntza eta arreta gutxiago jasotzen di-

tuzte. Borrokalari ohiek talde horiekin eta harrerako erkidegoekin duten harremana eta, era berean, gizarteratze ekonomikoa egin bitartean, aktore horietako bakoitzak, besteekin erkatuta, jaso duen tratua duen pertzepzioa garrantzizkoa izan daiteke, hala borrokalari ohien gizarteratze prozesuan, nola jendartea adiskidetzeko prozesuan.

Borrokalari ohiak diren emakumeek zailtasun bereziei egin behar diete aurre birgizarteratzeko hasierako laguntzak edo gizarteratzeko laguntzak jaso ahal izateko, gizonezkoak diren beren kideek dituzten baldintza berdinekin. Hala gertatzen da, adibidez, estatu bateko araudiak emakumei kontu bat zabaltzea -jasotako dirua bertara sartu ahal izateko- edo lurra eskuratu ahal izatea galarazten badie (Farr, 2002:22 eta 27). Era berean, hala gertatzen da, jendarteko konbentzioak direla-eta, emakumeek zailtasunak badituzte lan jakin batzuk lortzeko, mugikortasuna murriztuta badute, edota etxeko lanen edo zaintzen erantzukizun osoa beren gain hartu behar badute (Bouta, 2006:30; LANE, 2010:74). Inguruabar horiek era nabarmenean zailtzen dute -eta galarazi ere egiten dute- emakumeek eskolan edo lan-merkatuan berriz sartzeko duten aukera (Nazio Batuak, 2006:454).

Azkenik, DDR prozesuen esparruan, enpresa pribatua gero eta zeregin garrantzitsuagoa jokatzen ari da azken urteetan. DDR prozesuak nazioarteko finantziazioaren mende daude; eta, horren ondorioz, aski ahul daude. Batez ere birgizarteratzeko hasierako laguntza eta gizarteratze prozesuko osagaiak abiarazi ahal izateko, baliabide ugari behar dira, eta, Nazio Batuen esparruan, estatuek egindako borondatezko ekarpenen mende dago hori. Horren ondorioz, betearazi diren DDR prozesu gehienetan, finantza-arloko zailtasunak izan dira.

Testuinguru horretan, eta gatazka ondoko estatuetan liberalizazio ekonomikoa sustatzen duen *bake liberalaren* mendebaldeko agendan, estatu horiek ezinbestez bultzatu behar dute enpresa pribatuaren eginkizuna

⁵⁷ Hau saihesteko, borrokalari ohiei bultzada eman ahal diegu beren egoera sozioekonomikoa egonkortzeko eta, era berean, erkidego osoari onura emateko baliagarriak izan daitezkeen jardueretan sar daitezzen. Bestalde, DDR prozesuek zuzenagoak diren beste estrategia batzuk ere erabiltzen dituzte, esate baterako, biztanleak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, eta argi eta garbi azaltzea DDR prozesuen bidez ez zaiela borrokalari ohiei saririk eman nahi, prozesu horien xedea borrokalari ohiak erkidegoan txertatzea eta, horrenbestez, bakea eta segurtasuna bermatzea baita (*Ibidem*, 2006:460).

-hazkundera indartzeko “araudi- eta lege-esparruak” ere aldatzera iritsita (*Ibidem*:456)-, borrokalari ohiei zuzendutako enplegu-arloko aukerak sortu ahal izateko.

Herrialde askotan abiarazi dira ildo horretako esperientziak, desberdintasun nabarmenekin abiarazi ere (International Alert, 2006; Guáqueta eta Orsini, 2007). Hala ere, enpresa pribatuak DDR prozesuetan betetzen duen zeregina aski urria da gaur egun ere. Dena dela, egungo egoeran, alde batetik, nazioarteko lankidetzarako funtsak gero eta gehiago ari dira uzkuratzen eta, bestetik, mendebaldeko agendak merkatuaren ontasunak babes-ten dituzten politika neoliberalak sustatzen ditu. Egoera hori haztegi egokia izan daiteke sektore pribatua heda dadin, borrokalari ohiei zuzendutako enplegua sortzeko alternatiba gisa. Gatazka ondoko egoera horietan, eta eskubideak bermatzen dituzten lege-esparrurik gabe, oso zalantzezkoa da enpresa pribatua hauturik egokia ote den, adibidez, emakumea lan-munduan txerta dadin edo lan-eskubideak gorde daitezela, betiere, Nazio Batuek beldurrez onartzen dutenez (2006:456), “desmobilizatuak eta ahulak diren beste talde batzuk sektore pribatuaren ‘esklabo’ bilakatu gabe”.

4.4.2. Gizarteratze soziala

DDR prozesuetan parte hartzen duten guztiek aukera izan behar dute gizarteratzeko tokia hautatzeko. Adibidez, haien sorterriko landa-gunea edo hiria hauta dezakete, edo haien bikotekideen landa-gunea edo sorterrria, edota haien ustez askeago bizitzeko modukoa izan daitekeen beste landa-gune edo hiri bat (Bouta, 2006:29; Nazio Batuek, 2006:540).

Urte luzez talde armatuaren egitura zorrotz, hierarkiko, patriarkal eta bortitzaren altzoan egon ondoren, beharbada, borrokalari ohiei zail egingo zaie bizitza zibilean gizarteratzea -ziurrena, are gehiago, talde barruan denbora gehiago eman badute (Farr, 2002:28)-. Bestetik, harrera egingo dieten erkidegoei ere zail egingo zaie borrokalari ohiak onartzea (Anderlini, 2004:131). Hala ere, harrerako erkidegoaren zeregina funtsezkoa da gizarteratze prozesuaren esparruan, borrokalari ohien itzulera erraztu, zaildu edo arbuia ahal duelako.

Borrokalariak gerra garaian izandako jokaera era desberdinean epaituko da, gizonak edo emakumeak badira. Gizonezkoekin ez bezala, erkidegoak nekez edo zailtasunez ulertuko du emakumezkoak diren

borrokalari horiek gatazka izan denean egin dituzten ekintzak eta hartu dituzten erabakiak (Farr, 2002:30). Esate baterako, askotan, gatazka ondoko testuinguruetan, liskarretan parte hartu duten emakumeak gehiago hartzen dituzte desbideratuztat, gizonezkoak diren haien kideak baino, gatazkan izandako jokabidea naturaren aurkakotzat eta bereziki larritzat jotzen baita emakumeek erakutsi dutenean (*Ibidem*:8).

Hasteko, desmobilizazioak aldaketa sakona eragin dezake talde armatuaren esparruan gatazka armatuak iraun duen bitartean izan diren ezkontza- eta bikote-harremanetan (*Ibidem*:29). Ildo horretan, emakumeentzat ez da harritzekoa izaten egun batetik bestera lotura afektiboak hausten direla ikustea eta, aldi berean, harreman horren emaitza diren seme-alabak beren -eta ez beste inoren- ardurapean geratuko direla ohartzea.

Bikote-harremanek gatazka amaitu arte irauten badute, gehienetan emakumea joango da gizonarekin -bateratze ere, lurra eskuratzeko aukera generoaren mende dagoen tokietan-. Hala, beraz, ziurrena, emakumea izango da bere jatorrizko erkidegoari uko egingo diona (*Ibidem*:29). Nolanahi ere, eta sarritan erabakia emakumeen esku ez badago ere, beharbada ezkontuta jarraitzeak ekartzen dizkion onurak handiagoak izango dira horrek dituen desabantailak baino. Izan ere, ezkontzaren bidez, estatus soziala lortzeaz gain, batzuetan, lurra eskuratzeko aukera izaten dute, eta, horren ondorioz, egonkortasun ekonomiko eta babes handiagoa eskura dezakete, gatazka ondoko indarkeriaren aurrean (*Ibidem*).

Batzuetan borrokalari ohiak ongi etorriak ez direnez, -edo ongi etorriak izango ez direla sumatzen dutenez-, haietako askok sorterriko erkidegoetara ez itzultzea erabakitzen dute (Bouta, 2005:10; Worthen *et al*, 2011:37). Horrenbestez, uko egiten diete familiari eta jendartearen ziztuzten loturarik estuenei. Bestetik, sarritan, zaila izaten da hutsetik hastea kontserbadore eta itxiagoak diren inguruneetan, edo *beren iraganari buruzko azalpen gehiago eman* behar duten tokietan, esate baterako, landa-guneetan. Horregatik, ingurune asko, eta hiriak gero eta gehiago, borrokalari ohiei harrera egiteko alderdi natural bilakatzen ari dira. Laguntzako sare sozialetatik urrun egonik, askoz ere handiagoa da pobrezia, langabezia eta marjinalitateko zuloak sortzeko duten arriskua (Nazio Batuek, 2006:459).

Beste horrenbeste gerta daiteke emakume borrokalariekin. Emakumeek, gainera, susmo, presio edo arbuio sozial nabarmenagoa jasan dezakete gatazka ondoko testuinguruetan. Hainbat arrazoi daude tartean, hala nola hauek: gatazkan egindako jarduerak -borroka edo prostituzioa, hala borondatezkoa, nola bortxazkoa-, tradiziozko rola zenbateraino hautsi dituzten, seme-alabarik beren ardurapean ba ote duten, etab. (LANE, 2010:75).

Borrokan aritu ez badira ere, talde armatu bateko kide izan dira, eta horrek ondorioak ditu, besteak beste, sexu-arloan -sexu-esklaboak izan direlako susmoa, GIB/HIESAz edo sexuz transmititzen diren beste gaixotasun batzuek kutsatuta egoteko aukera-, eta ugalketa-arloan -ezkongabe egon arren, seme-alabak beren ardurapean izatea, edota haurdunaldiak-. Talde armatu bateko kide izanda, emakumeak *kaltetuta* (Farr, 2002:16), *kutsatua* (Worthen *et al*, 2011:38) edo *markatuta* geratzen dira beren erkidegoaren aurrean. Horiek horrela, beharbada emakumei gogoia kenduko zaie beren etxeetara itzultzeko (Farr, 2002:29), edo ongi etorriak izango ez diren landa-guneetara joateko. Hortaz, agian, emakumeek ere hirietara jotzeko hautua egingo dute, hirietan askeago sentitu ahal izango direlakoan (Nazio Batuak, 2006:540).

Beste batzuetan, gatazkak iraun duen bitartean rol berriak hartzea ahalduzko prozesuari begira lagungarria izan zaenez, emakumeek berek egin diete uko tradiziozko rola eta zereginak berreskuratzeari. Era horretan, urrats bat gehiago egin dute aurrera, eraldaketa soziala lortze aldera, baina, beharbada, beren bikotekideak, familiak edo jendarteak ez dute urrats hori ulertuko, ezta bultzatuko ere.

Bestetik, harrerako erkidegoetako emakumeek, beharbada, lan-zama handiagoa izango dute borrokalaria ohia beren familia edo erkidegoetara iristen direnean, batez ere borrokalaria horiek ahalmen-urritasun fisikoren bat badute, beren kargura seme-alabarik badute, edo gaixotasun edo trauma psikologikoren bat badute (Anderlini, 2004:128; Worthen *et al*, 2011:42). Era berean, borrokalaria ohia bizitza zibilean gizarteratzen direnean, litekeena da segurtasun ezak eta indarkeriak gora egitea -batez ere, etxeko indarkeria, borrokalaria ohien familien baitan (S/2002/154; Anderlini, 2004:128)-. Horrek, normalean, jendarteko pertsonarik ahulenengan izaten ditu ondorioak: emakume, adineko eta haurrengan (Farr, 2002:31).

Bestalde, emakume borrokalaria ohia bezala, jendarteko gainerako emakumeek ere, beharbada, rol eta erantzukizun berriak hartu behar izan dituzte beren gain, adibidez, arlo pribatua edota arlo publikoan erabakiak hartzeko parte hartzea. Kasu horietan, emakumeak *mendetasunetik askeegi* daudela sumatzen bada, tentsioa azal daiteke (*Ibidem*:29). Izan ere, gatazka ondoko jendartea eta, batez ere, gizonak beharbada ez dira gai izango eraldaketa sozial horiek onartzeko (Anderlini, 2004:128), eta beraiek ere aldatetarako eragile positibo bilakatzeko bere jendartean (Nazio Batuak, 2006:459).

4.4.3. Gizarteratze politikoa

Bizitza zibilera itzultzen direnean, borrokalaria ohiek beren burua ere eraiki behar dute berriz, herritar arduratsu, baketsu eta eraginkor gisa, eta dagokien jendarteak dituen beharrian eta interesekiko enpatiko moduan. Horren ondorioz, erabakiak hartzeko prozesuetan hartu behar dute parte (Farr, 2002:26) boterearen esparru guztietan. Ildo horretarako, funtsezkoa da borrokalaria ohiei dagozkien eskubide eta erantzukizun politikei buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa ematea, horrela, egitura demokratiko desberdinetan parte har dezaten laguntzeko, bereziki, gobernu eta demokrazia aldetik aldaketa sakonak izango dituzten testuinguruetan (Nazio Batuak, 2002:455).

Gizarteratze politikoa lortzeko, borrokalaria ohiek -gizonek zein emakumeek- aukera izan behar dute gatazka ondoko testuinguruan erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko, denek baldintza berberak edukita. Horretarako, konpromisoa hartu behar da emakume borrokalaria ohien hezkuntza politikoa garatzeko (Farr, 2002:26). Izan ere, emakume horiek ordezkari gisa gaitzetsuak izan behar dira publikoan eta pribatuan, eta, horren ondorioz, haien interesak ez dira behar bezala aintzat hartzen.

Gizarteratze prozesua abiarazteko, borrokalaria egokitze guneetan, sentsibilizazioa eta prestakuntza landu beharra dago. Bestela, horren ondoko gizarteratze-prozesuan, emakume borrokalaria ohiei bidea erraztu behar zaie, laguntzako egituretara iristeko modua izan dezaten -emakumeen mugimendu eta gobernu kanpoko erakundeetara- (*Ibidem*:24). Izan ere, emakumeek politikan gehiago parte har deza-

ten bultzatzea onuragarria izan daiteke emakumeen lidergoa arlo publikoan indartzeko (Nazio Batuak, 2006:540).

Egoera jakin batzuetan, emakumeek berek bultzatzea estrategia hori. Adibidez, emakumeek talde armatuekin bat egin bazuten, eskubide eta askatasun berberak eskuratzeko, edota zapalkuntzaren aurka borrokatzeko -adibidez, Eritrean, Ginea-Bissaun edo El Salvadorren (Bouta, 2005:6)-. Era berean, rol eta erantzukizun berriak beren gain hartu dituzten emakumeak badira, estrategiari begira lagungarria izan daiteke emakumeek gatazka zegoenean beren burua aldatzeko abian jarri zuten prozesua. Ahaldunduzko eta jendartea eraldatzeko abian jarri den prozesu horrekin aurrera egitea, eta atzerantz jotzeko egon daitezkeen saiakeri aurre egitea (Farr, 2002:26) izan daiteke emakumeek gatazka ondoko testuinguruan parte hartuko dutela bermatzeko egon daitezkeen biderik onena.

DDR prozesuak porrot egiteko izan diren arrazoi nagusietako bat zehaztu da (Nazio Batuak, 2006:437 eta hurrengoak): bertakoak ez dira prozesu horietaz jabetu, kanpotik ezarritako prozesutzat hartu dituztelako. Oro har, parte-hartzean oinarritutako ahalik eta prozesurik barneratzaileena abiaraztea lagungarria izan daiteke ahaldundute nazionala sustatzeko (Escuela de Cultura de Pau, 2008:4), ahaldundute-prozesua zabal harturik: ez soilik gobernuarekiko edo estatuko egiturekiko, jendarte zibilarekiko ere bai.

4.4.4. Gizarteratze psikologikoa

Sarritan, gogoia armagabetzea oso erronka zaila izaten da, epe luzean egin beharreko jardura. Gatazka guztiek sorrarazten dituzte zauri psikologikoak, eta gutxiago ikusten badira ere, zauri fisikoak baino larriagoak izan daitezke. Hala, bada, arreta egin behar zaie behar harriz horiei. Borrokalari ohien -eta harrerako jendarteen- izarteratze psikologikoa kultura aldetik egokia den modu batean landuz gero, ahalegina egingo dugu gatazka iraun duen bitartean izan den pentsamoldea eta jokabidea gainditzeko, eta urrats hori ezinbestekoa da bake iraunkorra lortu ahal izateko.

Gatazka izan den bitartean, borrokalariak indarkeria eta beldurraren bidez gizarteratu dira. Indarkeriazko ekintza izugarriak -hilketak, torturak, sexu-bortxaketak, bahiketak, eta abar- egin dituen alde batean edo bi aldeetan egon dira. Horrek, agian, ondorio psikologiko eta emozional sakonak utzi dizkie eta, horren ondorioz, depresioa, hira, apatia edo gatazka ondoko traumak pairatuko dituzte; eta trauma horiek are arriskutsuagoak dira alkohola edo drogak gehiegikeriaz hartzeko jokabidearekin bateratzen direnean (Nazio Batuak, 2006:449). Egoera batzuetan, gatazkaren iraupenaren edo borrokalariaren adinaren ondorioz, beharbada, borrokalariak ez dute batere eskarmenturik -edo oroimenik- izango bake-garaietan zegoen bizimoduari buruz (*Ibidem*:427).

Egoera hori gorabehera, eta profesionalen ustez pertsonak eta erkidegoek nozitutako traumak arintzeko dauden neurriak konturik garrantzitsuenak bada ere -borrokalari ohien biziraupen materialarekin bat-, kezka hori ez da aintzat hartu orain dela gutxi arte (*Ibidem*:449). Sarritan, gaur egun ere, ez ikusia egiten zaie edo gutxien zaie, DDR prozesuetan.

Borrokalari ohiak beren etxetara itzultzen direnean, hori zama astuna izan daiteke erkidegoentzat -eta, batez ere, erkidegoetako emakumeentzat-, are gehiago, borrokalari ohien egoera psikologikoa dela-eta, gaitasunik gabe geratu badira, eta lan egiteko edota beren buruaz arduratzeko gauza ez badira. Era berean, talde armatuetan egon diren emakumeek zailtasun psikologiko bereziak izan ditzakete. Adibidez, ez dira seme-alabak izateko gai izango (LANE, 2010:75), eta kontuan izan behar dugu ezintasun horrek jendarteen izan ditzakeen ondorio larriak.

Emakumeen taldeak adi egoten dira, beren erkidegoko kideak eta borrokalari ohiak dituzten beharrezkoak zein diren jakiteko. Hortaz, erakunde horiek prestatu dituzten proiektu askotan, laguntza psikologikoa eskaintzen zaie borrokalari ohiei eta harrera egiten dieten erkidegoei (Anderlini, 2004:130). Tankera horretako zerbitzuak egiteko aukera, eskura dauden baliabideen mende egoteaz gain⁵⁸, batez ere harrerako erkidegoak gizarteratze prozesuarekin hartzen duen konpromisoaren mende egongo da (Farr, 2002:31-32).

⁵⁸ Sarritan, DDR prozesuen esparruan baliabide aldetik dagoen eskasia dela-eta, oinarritzko beharrezkoak betetzeari ematen zaio lehentasuna, batez ere, borrokalari ohiak gizarteratze psikologikoko lanean sartzeari (Farr, 2002:32).

4.5. Sorterriratzea eta birkokatzea

Nazioarteko bihurtutako barne-gatazketan (Escola de Cultura de Pau, 2008:11), parte hartzen duten talde armatuetako kideren bat atzerritarra da edo, bestela, taldeak egiten dituen liskarrak ez dira herrialde bateko lurraldera mugatzen, muga aldeko beste herrialde batzuetara ere hedatzen baitira. Kasu horietan, DDR prozesuetan, osagai gehigarriak sartu behar dira nahitaez, DDR prozesua atzerriko borrokalarien egoerara egokitzeo, borrokalari horiek beren herrialdeetan edo hirugarren herrialde batean egin beharko baitute gizarteratze-prozesua.

Testuinguru horietan, desarme, desmobilizazio, sorterriratze, gizarteratze eta birkokatze prozesuak -DDRRR, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez erabiltzen diren siglen arabera- izaten dira. Prozesu horiek bi osagai berri hauek hartzen dituzte barne: borrokalariak eta haien mende dauden pertsonak beren sorterrira bidaltzea eta, beren herrialdera itzultzeari uko egiten dioten borrokalari ohiei dagokienez, haiei harrera egiteko prest dagoen beste estatu batean birkokatzea (International Crisis Group, 2003:20).

Kasu horretan, are konplexuagoa da prozesua, borrokalari ohia atzerritarra dela jakin bezain laster -normalean, armagabetu eta desmobilizatu ondoren jakiten da-, bere herrialdera bidali behar baita edo, bestela, birkokatu behar baita. Horretarako, DDRRR prozesua abiarazten duten agintariek lankidetzan jardun behar dute borrokalari ohien herrialdeko agintari

eskudunekin eta Iheslarietzako Nazio Batuen Goi Komisarioarekin, normalean bera arduratzen baita mendekoak diren zibilak lekualdatzeaz.

Adibide gisa, oso egokia izan daiteke Kongoko Errepublika Demokratikoaren kasua aztertzea. Testuinguru hori talde armatu atzerritarrek⁵⁹ gatazka armatu batean agertzeko eta parte hartzeko duten moduaren adibide garbia da. 2002. urtetik hona, estatuko borrokalari ohiak desarmatzeko, desmobilizatzeko eta gizarteratzeko abiarazitako prozesuarekin batera, aldi berean, beste prozesu bat dago abian: borrokalari ohi atzerritarren eta beren mendekoen desarme, desmobilizazio, sorterriratze, gizarteratze eta birkokatze prozesua. Borrokalari ohi atzerritarrek desarmatu eta desmobilizatu ondoren, Uganda, Ruanda edo Burundirekiko mugaraino eramaten dira. Hor, estatu horietako bakoitzean DDR prozesuen eskumena duten erakundeen esku uzten dira⁶⁰ eta, une horretatik aurrera, erakunde horiek hartzen dute beren gain prozesuaren erantzukizuna. 2002. urtetik hona, Kongoko Errepublika Demokratikoan abiarazitako desarme, desmobilizazio, sorterriratze, gizarteratze eta birkokatze prozesuaren bidez, 15.000 borrokalari ohi atzerritar eta 12.000 mendeko baino gehiago sorterriratu eta birkokatu dira, aldameneko herrialdeekin eta Iheslarietzako Nazio Batuen Goi Komisarioarekin lankidetzan arituta⁶¹.

⁵⁹ Gaur egun, oraindik ere, atzerriko hainbat talde armatu daude jardunean Kongoko Errepublika Demokratikoan: Ugandako Jaunaren Erresistentziarako Armada eta Indar Demokratiko Aliatuak, Ruandako Ruandaren Askapenerako Indar Demokratikoak, eta Burundiko Askapenerako Indar Nazionalak.

⁶⁰ Ugandako Amnistiarako Batzordea, Ruandako Desmobilizazio eta Gizarteratze Batzordea, eta Hego Sudaneko Desarme, Desmobilizazio eta Gizarteratze Batzordea, hurrenez hurren.

⁶¹ Nazio Batuek Kongoko Errepublika Demokratikoan duten Egonkortzeko Misioko (Monusco) emandako datu hauek ez daude sexu arabera bereizita; eta, beraz, ezin dugu jakin borrokalari atzerritar horietatik zenbat ziren emakumezko, ezta mendeko guztietatik zenbat ziren emakumezko ere. Hala ere, gatazka honen dinamikak kontuan hartzen badugu, nahiz eta borrokalarien artean emakumeen ehuneko oso handia ez izan, seguraski mendekoen artean oso altua izango da. 2012ko abenduaren 20an kontsultatutako orria; hemen dago eskuragarri: <<http://monusco.unmissions.org/Default.aspx?tabid=10728&language=en-US>>.

5. Ondorioak: DDR prozesuak, berdintasunezkoagoa den gatazka ondoko gizartea sustatzeko aukera gisa

Gatazka armatuetan, berriz zehazten dira genero arloko harremanak, baina zehaztapen horrek ez du eragin bera izaten jendarteko kide guztiengan. Esperientziak frogatzen duenez, egoera horretan, emakume askoren tradiziozko rola aldatzen dira, esate baterako, haientzat desegokitzen hartzen diren lanak egiten dituztelako (Farr, 2002; Barth, 2002), gehiago antolatzen direlako eta jendarrean gehiago mobilizatzen direlako (Mendia, 2009:7), edo erabakiak hartzeko guneetan gogotsu esku hartzen dutelako.

Aitzitik, gizonen normalean aurretiko gizonen rola indartzen dituzte, denboraldi horretan nagusi diren maskulinitatearen balio patriarkaletara jotzen delako (*Ibidem*:19) -oldarkortasuna, ausardia, esanekotasuna, indarra, diziplina-, gizonak borrokalari bilaka daitezke. Era berean, Farr-ek dioenez (2002:14), gerra oso era esplizituan dago lotuta mendekotasun maskulinoaren ideia patriarkalekin eta, horren ondorioz, gizonen zailtasun ugari izaten dute borrokalarien matxismoa zalantzan jartzeko.

Generoa eta haren ondorioz esleitutako rola eta harremanak maila sozial eraikiak eta dinamikoak dira. Gatazkaren esparruan, kanpoko eragileen ondorioz alda daitezke -adibidez, emakume bat armak hartzea behartzen badute, edo etxeko ardura bere gain hartu behar badu-, edo borondatez aldaraz daitezke -esate

baterako, emakumeak berak erabakitzen badu armak hartzea edo gizonak armak ez hartzea erabakitzen badu-. Hain zuzen, bakealdietan ezin iritsizkoak diren egitura politiko, ekonomiko eta sozialetan eragina izateko dagoen aukera hori dela-eta (Farr, 2002:12), gatazkak eta gatazka ondoko testuinguruak, maiz, eraldaketa soziala sorraraz dezaketen gune gisa hartu dira, batez ere emakumei begira.

Hala ere, aski gai eztabaidagarria da, gatazka ondoko testuinguruak benetan aukera egokiak ote diren jendarte jakin batean indarrean dauden genero rola eta estereotipoak gainditzeko, eta beste rol eta estereotipo batzuk negoziatzeko (*Ibidem*:25 eta 28). Literaturan behin eta berriz errepikatu denez (Murguialday, 2000; Barth, 2002; Farr, 2002; El-Bushra, 2004; Bouta, 2005; Mendia, 2009; LANE, 2010), esperientziak argi frogatzen du gatazka egoeretan zuzentasunetik gertuago dauden gizon eta emakumeen arteko genero harremanak lortzeko izaten diren aldaketek gutxitan irauten dutela bere horretan gatazka ondoko testuinguruetan⁶².

Gatazka ondoren, emakumeen jokabidea subertsibotzat jotzen da (Farr, 2002:30; moral egokitik urrunduta dagoela (LANE, 2010:75), eta jendarte horretan finkatuta dagoen ordena sozialerako arriskutsua dela uste da. Gatazka politikoan edo militarrean parte

⁶² Stiefelek dioenez ([1999], Farr-ek aipatua, 2002:17), gatazka ondoko testuinguruetan, "emakumeak agertokiaren atzean desagertu ohi dira".

hartu duten emakumeek presio sozial gogorrari egin behar diote aurre, gatazka hasi aurretik betetzen zizuten rolak berriz betetzera behartu nahi dituztelako (Pankhurst, 2003). Horrenbestez, bistan denez, gatazka izan bitartean jendar-tean izan diren eraldaketak ez dira inola ere ezin itzulizkoak (Farr, 2002:28 eta 30). Hainbat arrazoï aipa ditzakegu errealitate hori azaltzeko, besteak beste, hauek:

- Genero arloko kontuak ez dira lehentasunezko-tzat jotzen gatazka ondoko testuinguruetan (Mendia, 2009:9), ez eta “segurtasunari buruzko azterketa estatuzentrikoetan ere, azterketa horiek gizonen ikuspegiak, interesak eta ekintzak hartzen baitituzte ardatz gisa” (Pérez de Armiño, [2013]:47). Tartean sartuta dauden gobernuak eta nazioarteko emaileek kezka gehiago hartzen dute segurtasunari -segurtasuna lehen aipatu dugun moduan ulertuta, hau da, guztiz maskulinoa den ikuspegitik- eta egonkortasunari eusteko, edota liberalizazio ekonomikoa bultzatzeko -nazioarteko agendak sustatzen duen *bake liberalaren* proiektuaren esparruan-, berdintasunetik gertuago dagoen jendar-tea lortzeko bidean aurrera egiteko baino.
- Gatazkek emakumeek eta gizonen beren gain hartzen dituzten rolak alda ditzakete, baina askoz ere zailagoa da “desberdintasuna legezkatzen duten *botere-egiturak*⁶³ eta *genero ideologiak*⁶⁴” eraldatzea (Mendia, 2009:7). Bestade, mikro mailan emakumeen genero-arloko roletan aldaketak izan badira ere -emakumeen bizitzan, etxeetan edo erkidegoetan-, makro mailan ez da aldaketarik izan emakumeek politika- edo antolakuntza-arloan duten eraginean. El-Bushrak dioenez (2004:163), “emakumeek erantzukizuna hartu dute beren gain, baina ez zaie botererik laga”.
- Tradiziozko rolekiko haustura horren ondorioz, “gizonen eta emakumeen arteko harremanek

egonkortasuna gal” dezakete (Mendia, 2009:7), eta zalantzan jar daiteke emakumeen *status quoa*, une horietan jendar-tea ahaleginak egiten ari baita *normaltasunera* ahalik eta arinen itzultzeko (Farr, 2002:7).

- Horrez gain, batzuetan, gatazka ondoko jendar-tea bereziki kontserbadore bilakatzen da. Horrelakoetan, berriz jartzen da abian *tradiziozko genero roletara itzultzeko prozesua*, jendar-tea militarizatu egiten da eta erlijiozko fundamentalismoak gora egiten du (Mendia, 2009:7 eta 19). Inguruabar horien guztien ondorioz, gerta liteke giza eskubideak oro har (El-Bushra, 2004:165) eta emakumeen eskubideak bereziki atzera egitea berriz⁶⁵.
- Talde armatu batzuetan, hainbat urrats egin ziren aurrera genero harremanetan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerantz jotzeko -batez ere, askapen nazionalerako mugimenduetan eta gerrilletan-. Horrelako kasuetan, egoerak atzera egiten du, desmobilizazio prozesuarekin bat, gizonen kontzertatze erraza eta onuragarria baita gatazka aurretik zegoen desberdintasuneko egoerara itzultzea (Farr, 2002:29).
- Gatazka guztietan, aktoreen arteko botere-harremana egoten da. Gizonen eta emakumeen genero-arloko harremanetan dagoen gatazkari dagokionez, botere-harreman horietan gizonak egoera abantailatsuan daude, eta emakumeak, berriz, azpian. Harreman horiei hainbat estrategiaren bidez eusten zaie, besteak beste, emakumeen aurka indarkeria erabiliz (Mendia, 2009:8). Hori jakinda, hobeto uler litezke gatazka ondoko testuinguruetan izaten diren emakumeen aurkako indarkeria-maila handiak -familia barruko indarkeria, sexu-indarkeria, nahitaezko prostituzioa-.
- Nazioarteko tresnak -adibidez, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325(2000) Ebazpena edota emakumeen aurkako bereizkeria-mota guztiak

⁶³ *Generizatutako botere-egiturak* instituzio sozialak dira (familia, erkidegoa, eskola, lan-merkatua, estatua); baliabide jakin batzuk kontrolatzeaz gain, haiek erabakitzen dute nola sartzin diren haien baitara gizonak eta emakumeak, hurrenez hurren, zein ekarpen egiten duten eta zein eragin jasotzen duten instituzio horiengandik eta, era berean, nola jasotzen dituzten gizonen eta emakumeen instituzio horien laguntza, estatua, baliabideak eta babesak, edota nola ukatzen zaizkien (El-Bushra, 2004:171).

⁶⁴ *Genero ideologiak* kontzeptuak genero rolei eta identitateei eusten dien, eta *generizatutako botere-egiturak* balioduntzen dituen balio-sistemari egiten dio aipamena (*Ibidem*).

⁶⁵ Era honetako egoerak gatazka ondoko hainbat testuingurutan jazo dira, adibidez, Afganistanen (Farr, 2002:16) eta Bosnia-Herzegovinan (Mendia, 2009).

ezabatzeko Biltzarra- eraginkorrak izan daitezten, jendarte zibil indartsua behar da herrialdean, gobernuari presioa egin diezaion -hala behar denean- eta tresna horiek berretsi eta ezar ditzan (Farr, 2002:16). Hala ere, egoera hori ez da batere arrunta gatazka ondoko testuinguruetan, salbuespen guti batzuetan izan ezik, adibidez, apartheid ondoko Hegoafrikan.

Praktikak ondo frogatzen duenez, emakumeek ez dute parte hartzen -edo oso era mugatuan hartzen dute parte- DDR prozesuetan izaten diren bake-negoziazioetan; eta, beraz, emakumeen interesak eta itxaropenak ez dira agendan barne hartzen. Era berean, emakumeek ez dute esku hartzen prozesua diseinatzeko eta plangintza egiteko lanetan eta, beraz, DDR prozesua ez dago emakumeentzat diseinattuta, emakumeek diseinatzeko ez dutelako. Emakumeek parte har dezaten, hautagarritasun-irizpideak hartzen dira aintzat, eta irizpide horiek ez dituzte kontuan izaten emakumeek talde armatuetan egin dituzten rol askotarikoak eta, gainera, oztopo dira emakumeak barne hartu ahal izateko. Emakumeen beharrianak, interesak edota segurtasuna ez dira behar bezala zaintzen desarme eta desmobilizazio prozesuan. Azkenik, neurri berean eraldatu ez den jendarreak presioa egiten du emakumeak *era egokian* gizarera daitezten eta, horretarako, emakumeek uko egin behar diete gatazka izan den bitartean ikasi dituzten jakintzei eta trebetasunei, atzera egin behar dute ahalduzko ibili duten bidean, eta gatazka aurretik zeuden tradiziozko rola eta identitateak onartu behar dituzte, jendartera itzultzeko haien zain zeuden horiek.

Gizonen eta emakumeen arteko zuzentasuna lortzeko jendarreak izan diren eraldaketak finkatzeari aurre egiten dioten jarrerak azaltzeko goian aipatu ditugun argudio gehienak guztiz baliagarriak dira DDR prozesuak jendarrea eraldatzeko baliatzeari aurre egiten dioten jarrerak ere azaltzeko. Esate baterako, DDR prozesuaren funtsezko helburua gatazka ondoko testuinguruan egonkortasun eta segurtasun gehiago egon dadin lortzea da. Hala ere, jendarrea eraldatzeko, eta gizonen eta emakumeen arteko zuzentasuna lortzeko, ezinbestez kritikatu behar ditugu jendarreak sakon errotuta dauden rola, identitateak, botere-egiturak eta ideologiak. Beren leku abantailatsuari eutsi nahi dioten horiek era

na barmenean egiten diote aurre aldatetari. Horrelako kasuetan, tirabirak eta gatazkak sortuko dira, eta aukera ugari egongo da prozesua ezegonkortzeko.

Eutsi ahal dio erronka horri gatazka ondoko jendarte batek? Are gehiago, gehiengoak onartzen ez badu, gatazka ondoko bake-garaian, emakumeek gatazka izan den bitartean berdintasuna lortzeko erdietsitako aurrerapen garrantzitsu asko gal ditzaketela, orduan, nola sortuko ditugu baldintza egokiak gatazka ondoko testuinguruan atzerakada hori gerta ez dadin? Lagungarriak izan al daitezke DDR prozesuak berdintasunerantz egindako eraldaketa horiek sendotzeko? Nola lor dezakete hori?

Auzi horiek guztiak oso korapilatsuak dira, eta sakon aztertu behar dira. Oraingoz, jarraian erakutsiko dugun moduan, auzi horiei erantzuterakoan, ziurgabetasun asko eta ziurtasun gutxi aurkitu dugu.

- Tresna diren aldetik, DDR prozesuak genero rola eta identitateak jendarreak berriz negoziatzen laguntzeko baliak daitezke. Hortaz, prozesu horien bidez, gatazka armatua izan bitartean talde edo indar armatuetan esku hartu duten borrokalariak armagabetu eta desmobilizatzen dira -zibil bilakatzeko dira- eta, gero, jendarreak sartzen dira berriz. Zalantzarik gabe, izaera eraldatzailea dute.
- DDR prozesuek duten helburu nagusia egonkortasuna eta segurtasuna lortzea da. Gogoeta sozialak -besteak beste, berdintasuna sustatzea- bigarren mailan uzten dira (Bouta, 2005:10). Helburu horiek bakea eraikitzeke nazioarteko agendan dauden zehaztuta. Agenda horrek, generoko ikuspegia sartu nahi du bakea eraikitzeke darabiltzan estrategietan -DDR prozesuak barne hartuta-; baina, hala ere, gizonen diseinatzeko dute agenda oraindik ere eta, beraz, gizonen interesak eta kezkek babesten ditu (Farr, 2002:17). Jendarrea eraldatzea, eta zuzentasunetik gertuago dauden jendarreak lortzea ez da soilik gatazka ondoko testuinguruan dauden herrialdeek egiteke duten zeregina.
- DDR prozesuek laguntza eman behar dute, alde batetik, gatazka izan den bitartean⁶⁶ eraldatu diren

⁶⁶ Esate baterako, emakumeek ere indarkeria berregiten parte hartzen dutela onartzeak garrantzi handia du, bakeari eta gatazkei begira duten jokabidean nagusi diren generoko estereotipoen dekonstrukzioa egin ahal izateko (Farr, 2002:17).

tradiziozko genero-rolak zehazteko eta bistartzeko -batez ere, emakumeei dagozkienak- eta, bestetik, lehengo rol eta identitateak berriz zehazteko eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunetik gertuago egongo diren beste molde batzuk finkatzeko aukera emango diguten estrategiak ezartzeko. Praktikan, gaur egun, DDR prozesuetan, ildo horretako neurri asko hartzen dira barne. Horra hor, adibidez, gizarteratze ekonomikoaren onurak jasotzean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzen duten neurriak, edo gizarteratze prozesuan emakumeen burujabetasuna eta parte-hartze politikoa sustatzen dituztenak.

- Gizarteratzea borrokalariak jendarteko praktika ekonomiko eta sozialetan sartzeko egiten duen banakako prozesu gisa ikusteko ideia ahultzen da. *Gizarteratze komunitarioaren* ideia, berriz, beste modu bat aurkezten du segurtasuneko egoerei aurre egiteko, eta norbanakoa eta taldea ahalduntzeko prozesuak bultzatzen ditu. Horrek zenbait ikuspegi feminista ekartzen dizkigu gogora, segurtasunaren kontzeptuari buruz beste begirada bat babesten duten ikuspegia (Mendia eta Saillard, [2013]:237).
- Jendarte gehienetan, militarismoa, gehienbat, maskulinitateari lotuta agertzen da (Farr, 2002:10). Hala ere, ezin dugu ahaztu “feminitatearen ideia” ere militarismoa sustatzen eta babesten duela; hau da, tradizioz emakumeei esleitutako rolerak eta estereotipoek, alde batetik, eta emakumeen militarizazioak bereak ere, beste aldetik, militarismoa sustatzen dutela (Enloe, 1998:xv eta 2000:2). Txanpon bereko bi aldeak dira. Hortaz, jendartea desmilitarizatzeke, emakumei eta gizoni esleitutako rolerak eta identitateak ezinbestez zehaztu behar ditugu berriz (Farr, 2002:11). Eran-tzukizuna ez dagokie soilik emakumei.
- Onartzen badugu militarismoak berez duela lotura mendekotasun maskulinoaren balioekin, orduan, gizonen, balio patriarkal horien biktima ere badi-renez eta gatazka dagoen bitartean balio horiei uko egiteko aukera gutxi dutenez (*Ibidem*:15), beharba-da, gatazka ondoko testuinguruan izango dute auke-ra egokia, lehenik, balio horiek ez errepikatzeke eta, horren ondoren, balioak berriz zehazteko, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin bateraga-riagoa den era batean. DDR prozesuak gizon bo-rrokalariei zuzenduta daude berariaz. Gizon horiek eratzen duten instituzio soziala -militarra- nagusi di-ren balio maskulinoak barneratuen dituen da. Hain zuzen, balio horiek dira gatazka izan den bitartean haien baitan gehien indartu dena. Ezinbestekoa da gizon borrokalari ohiekin lan egitea.
- DDR prozesuetan, funtsezkoa da bananako eta taldeko gaitasunak prestakuntza, sentsibilizazio, antolakuntza eta mobilizazioko ekimenen bidez indartzea⁶⁷ (Mendia eta Saillard, [2013]:237-238). Era horretan, emakumeak ahalduntzeko prozesuak bultzatzeaz gain, jendarte eraldatzeko prozesu ho-rreren aurrean uzkur agertzen diren aktoreak *geure iritzietara baitaratu* ahal izango ditugu, aukera ho-rreren interesaz ohar daitezten.
- Gizarteratuta dauden emakume borrokalari ohiek larrutik ordaindu behar izaten dute *atzerapauso-rik* ez emateko eta eskatzen dieten moduan tradi-ziozko rolerak beren gain berriz ez hartzeko erabakia. Arbuioa, bakardadea, pobrezia, ikusezintasuna, mespretxua. Hala ere, hori gorabehera, garai ba-tean talde armatuetan aritutako emakume batzuek argi eta garbi dute: “kontuak ez dira inoiz lehen bezala egongo”⁶⁸.

⁶⁷ Mota honetako ekimenak DDR prozesu osoan barrena egin beharko liriteke; esate baterako, honelakoak egin litezke: gatazka den bitar-tean eta gatazka ondoren genero roleri eta harremani buruzko prestakuntza; genero- eta sexu-indarkeriari buruzko prestakuntza ematea; tradiziozko genero rolerak eta harremanak zalantzan jarri nahi dituzten emakumeen erakundeak sustatzea -eta gizonen erakundeak ere bai-; etabar. Bestalde, ekimenek DDR prozesuetan zuzenean edo zeharka sartuta dauden pertsona guztiei zuzenduta egon beharko lukete, besteak beste, borrokalari ohiei, talde armatuei laguntza ematen dieten lagunei eta mendekoak diren pertsoni, DDR prozesuetako lan-gileei, gobernuetako ordezkari, gobernu kanpoko erakunde, erkidegoetako buruzagiei, agintari tradizionalen etab.

⁶⁸ Emakume borrokalari ohi bati egindako elkarrizketa baten zatia (El-Bushra, 2004:165).

Bibliografia

- ANDERLINI, Saram Naragui (2000), *Women at the Peace Table*, UNIFEM, New York, (2012ko abenduaren 20an egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <<http://www.unifem.org/attachments/products/WomenAtPeaceTable.pdf>>.
- ANDERLINI, Saram Naragui eta Camille Pampell CONAWAY (2004), “Disarmament, Demobilisation, and Reintegration”, hemen: INTERNATIONAL ALERT eta WOMEN WAGING PEACE, *Inclusive Security, Sustainable Peace: A Toolkit for Advocacy and Action*, Londres, 125-134 (2012ko urriaren 6an egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <<http://es.scribd.com/doc/101864251/Toolkit-for-Advocacy-and-Action>>.
- BALL, Nicole eta Luc VAN DE GOOR (2006), *Disarmament, Demobilization and Reintegration. Mapping Issues, Dilemmas and Guiding Principles*, Netherlands Institute of International Relations *Clingendael*, Haga (2012ko azaroaren 11n egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <http://www.clingendael.nl/publications/2006/20060800_cru_paper_ddr.pdf>.
- BARTH, Elise Fredrikke (2002), *Peace as disappointment. The reintegration of female soldiers in post-conflict societies: A comparative study from Africa*, International Peace Research Institute, Oslo (2012ko irailaren 14an egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <[http://file.prio.no/Publication_files/Prio/Barth%20\(2002\)%20Peace%20as%20Disappointment%20\(PRIO%20Report%203-2002\).pdf](http://file.prio.no/Publication_files/Prio/Barth%20(2002)%20Peace%20as%20Disappointment%20(PRIO%20Report%203-2002).pdf)>.
- BOUTA, Tsjeard (2005), *Gender and Disarmament, Demobilization and Reintegration. Building blocs for Dutch Policy*, Netherlands Institute of International Relations *Clingendael*, Haga (2012ko azaroaren 13an egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <<http://www.oecd.org/derec/netherlands/35112187.pdf>>.
- CARAMÉS, Albert (2006), *La reintegración comunitaria*, Escola de Cultura de Pau, Bartzelona (2012ko azaroaren 12an egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <<http://escolapau.uab.cat/img/programas/desarme/informes/06informe022.pdf>>.
- DOUMA, Pyt (2001), *Political Economy of Internal Conflict: A Review of Contemporary Trends and Issues*, Netherlands Institute of International Relations ‘Clingendael’, Haga. Interneten eskuragarri: <http://www.clingendael.nl/publications/2001/20011000_cru_working_paper_1.pdf>.
- DUBOIS, Alfonso (2000), “Condicionalidad”, hemen: PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos (zuz.), *Diccionario de acción humanitaria y cooperación al desarrollo*, HEGOA-Icaria, Bartzelona (2012ko urriaren 22an egindako kontsulta), hemen dago eskuragarri: <<http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/38>>.
- EL-BUSHRA, Judy (2004), “Fused in combat. Gender relations and armed conflict”, hemen: AFSHAR, Haleh eta Deborah EADE, *Development, Women and War. Feminist Perspectives*, Oxfam International, Oxford, 152-171 (2012ko azaroaren 30ean egindako kontsulta), hemen dago eskuragarri:

- <<http://www.developmentinpractice.org/sites/developmentinpractice.org/files/WomenandWarFullTextEN.pdf>>.
- ENLOE, Cynthia (1998), "All the men are in the militias, all the women are victims: the politic of masculinity and femininity in nationalist wars", hemen: LORENTZEN, Louis Ann eta Jennifer TURPIN (arg.), *The women and war reader*, New York, 50-63.
- ENLOE, Cynthia (2000), *Maneuver. The International Politics of Militarizing Women's lives*, University of Los Angeles Press, Berkeley.
- ESCOLA DE CULTURA DE PAU (2008), *DDR 2008. Análisis de los programas de Desarme, Desmovilización y Reintegración (DDR) existentes en el mundo durante 2007*, Bartzelona (2012ko irailaren 15ean egindako kontsulta), hemen dago eskuragarri: <<http://escolapau.uab.cat/img/programas/desarme/ddr005.pdf>>.
- ESCOLA DE CULTURA DE PAU (2009), *DDR 2009. Análisis de los programas de Desarme, Desmovilización y Reintegración (DDR) existentes en el mundo durante 2007*, Bartzelona (2012ko irailaren 15ean egindako kontsulta), hemen dago eskuragarri: <<http://escolapau.uab.cat/img/programas/desarme/ddr/ddr2009e.pdf>>.
- FARR, Vanessa (2002), *Gendering demilitarization as a Peacebuilding Tool*, Bonn (2012ko irailaren 19an egindako kontsulta), hemen dago eskuragarri: <http://www.bicc.de/uploads/tx_bicctools/paper20.pdf>.
- GREENE, Owen eta Simon RYNN (2008), *Linking and Co-ordinating DDR and SSR for Human Security after Conflict: Issues, Experience and Priorities*, Center for International Cooperation and Security, University of Bradford.
- GOODHAND, Jonathan (2006), *Aiding Peace? The Role of NGOs in Armed Conflict*, Practical Action Publishing, Rugby.
- GUÁQUETA, Alexandra eta Yadaira ORSINI (2007), *Empresarios y reintegración. Casos, experiencias y lecciones*, Fundación Ideas para la paz, 4, Bogotá (2012ko abenduaren 5ean egindako kontsulta), hemen dago eskuragarri: <http://www.ideaspaz.org/portal/images/empresarios_web.pdf>.
- HARDING, Sandra (1987), "Introduction. Is there a Feminist Method?", hemen: HARDING, Sandra (arg.) *Feminism and Methodology*, Indiana University Press, Bloomington/Indianapolis, (Itzulpena: Gloria Elena Bernal, "Existe un método de investigación feminista", 1-11).
- INTERNACIONAL ALERT (2006), *Local Business, local Peace: The Peacebuilding Potential of the Domestic Private Sector*, London (2012ko abenduaren 15ean egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <<http://www.international-alert.org/resources/publications/local-business-local-peace>>.
- INTERNATIONAL CRISIS GROUP (2003), *Rwandan hutu rebels in the Congo. A new approach to Disarmament and Reintegration*, African Report, 63 (2012ko abenduaren 3an egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <<http://www.crisisgroup.org/-/media/Files/africa/central-africa/rwanda/Rwandan%20Hutu%20Rebels%20in%20the%20Congo%20a%20New%20Approach%20to%20Disarmament%20and%20Reintegration.pdf>>.
- KALDOR, MARY (1999), *New and old wars. Globalized Violence in a Global Era*, Standford University Press, Standford.
- MCKAY, Susan eta Dyan MAZURANA (2004), *Where are the girls? Girls in Fighting Forces in Northern Uganda, Sierra Leone and Mozambique. Their Lives during and after war*, Rights&Democracy, Kanada (2012ko azaroaren 14an egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <http://www.essex.ac.uk/armedcon/story_id/000478.pdf>.
- MENDIA, Irantzu (2009), *Género y rehabilitación posbélica. El caso de Bosnia-Herzegovina*, Hegoa, Bilbo.
- MENDIA, Irantzu eta Dominique SAILLARD (inprimategian), "Feminismo y seguridad humana: Encuentros y desencuentros", hemen: PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos eta Irantzu MENDIA (arg.), *Seguridad Humana, Aportes críticos al debate teórico y político*, Tecnos, Madril, 227-246.
- MURGUIALDAY, Clara (2000), "La construcción de la ciudadanía de las mujeres después del conflicto", hemen: Hainbat egile, *Guerra y Desarrollo. La re-construcción post-conflicto*, UNESCO-Etxea, Bilbo, 38-44.

- NAZIO BATUAK (1995), *Declaración y Plataforma de Acción de Beijing. Cuarta Conferencia Mundial sobre la Mujer Reunida en Beijing del 4 al 15 de septiembre de 1995*, (2012ko irailaren 27an egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <<http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/pdf/BDPfA%20S.pdf>>.
- NAZIO BATUAK (2006), *Integrated Disarmament, Demobilization and Reintegration Standards*, New York (2012ko irailaren 22an egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <http://pksoi.army.mil/doctrine_concepts/documents/UN%20Guidelines/IDDRS.pdf>.
- NAZIO BATUAK (2009), *A new partnership agenda. Charting a New Horizon for UN Peacekeeping*, New York (2012ko azaroaren 15ean egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <<http://www.un.org/en/peacekeeping/documents/newhorizon.pdf>>.
- NAZIO BATUAK (2010), *ddr in peace operations. A retrospective*, New York (2012ko azaroaren 2an egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <http://www.un.org/en/peacekeeping/documents/DDR_retrospective.pdf>.
- NAZIO BATUAK (2010b), *Les pratiques de désarmement, démobilisation et réintégration (DDR) de "deuxième génération" dans les Opérations de Paix. Une contribution aux discussions "Nouvel horizon" sur les défis et les opportunités du maintien de la paix de l'ONU*, New York (2012ko azaroaren 22an egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <http://www.operationspaix.net/DATA/DOCUMENT/425-v-Les_pratiques_de_desarmement_demobilisation_et_reintegration_DDR_de_deuxieme_generation_dans_les_operations_de_paix.pdf>.
- ELGA, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea (2007), *OECD DAC Handbook on Security System Reform. Supporting Security and Justice*, Paris (2012ko irailaren 15ean egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <<http://www.oecd.org/development/incaf/38406485.pdf>>.
- LANE, Lanaren Nazioarteko Erakundea (2010), *Socio-Economic Reintegration of Ex-combatants*, Suitza (2012ko abenduaren 3an egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---ed_emp/documents/instructionalmaterial/wcms_141276.pdf>.
- PANKHURST, Donna (2003), "The sex war' and other wars. Towards a feminist approach to peacebuilding", *Development in Practice*, 13 (2-3), 154-177.
- PEREZ DE ARMIÑO, Karlos (2007), "Aproximación a los debates sobre las causas de las guerras civiles contemporáneas", hemen: DE CASTRO, José Luis eta Gorka ORUETA (arg.), *Escritos de internacionalistas en homenaje al profesor Iñaki Aguirre Zabala*, UPV/EHU, Bilbo, 313-335.
- PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos (inprimategian), "Seguridad humana y estudios críticos de seguridad: De la Cooptación a la emancipación", hemen: PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos eta Irantzu MENDIA (arg.), *Seguridad Humana, Aportes críticos al debate teórico y político*, Tecnos, Madril, 23-57.
- RUÍZ-GIMÉNEZ, Itziar (inprimategian), "La nueva arquitectura africana de paz y seguridad: Evolución, oportunidades y desafíos", hemen: PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos eta Irantzu MENDIA (arg.), *Seguridad Humana, Aportes críticos al debate teórico y político*, Tecnos, Madril, 268-292.
- UNIFEM, Nazio Batuen Emakumeentzako Garapen Funtza (2009), *Women's Participation in Peace Negotiations. Connections between Presence and Influence* (2012ko abenduaren 14an egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <http://www.peacewomen.org/assets/file/Themes/unifem_handout_women_in_peace_processes_brief_april_20_2009.pdf>.
- WORTHEN, Miranda *et al* (2011), "Gender-based insecurity and opportunities for peace: supporting the reintegration of young war-affected mothers", *disarmament forum*, 3, 35-45 (2012ko abenduaren 12an egindako kontsulta); hemen dago eskuragarri: <<http://www.isn.ethz.ch/isn/Digital-Library/Publications/Detail/?ots591=0c54e3b3-1e9c-be1e-2c24-a6a8c7060233&lng=en&id=134104>>.

Nazio Batuen dokumentu ofizialak

- A/47/277-S/24111, 1992ko ekainaren 17koa, *Bake-rako programa. Diplomazia prebentiboa, bakea ezartzea eta bakeari eustea*.
- A/55/305-S/2000/809, 2000ko abuztuaren 21koa, *Taldearen Txostena, Nazio Batuak erakundearen Bake Lanei buruzkoa*.

A/C.5/59/31, 2005eko maiatzaren 24koa, *Idazkari Nagusiak Batzar Nagusiari egindako Oharra, Nazio Batuek bakeari eusteko egiten dituzten lanak finantzatzeko administrazio- eta aurrekontu-aldeko alderdiei buruzkoa.*

A/63/881-S/2009/304, 2009ko ekainaren 11koa, *Idazkari Nagusiaren Txostena, gatazka ondo-ondoren bakea sendotzeari buruzkoa.*

S/2000/101, 2000ko otsailaren 11koa, *Idazkari Nagusiaren Txostena, Nazio Batuek desarme, desmobilizazio eta gizarteratze prozesuan bakeari eusteko egiten dituzten lanek duten zereginari buruzkoa.*

S/2002/154, 2002ko urriaren 16koa, *Idazkari Nagusiaren Txostena, emakumeari eta bake eta segurtasunari buruzkoa.*

S/2006/770, 2006ko irailaren 27koa, *Idazkari Nagusiaren Txostena, emakumeari eta bake eta segurtasunari buruzkoa.*

S/2010/498, 2010eko irailaren 28koa, *Idazkari Nagusiaren Txostena, emakumeari eta bake eta segurtasunari buruzkoa.*

S/RES/650, 1990eko martxoaren 27koa.

S/RES/1325, 2000ko urriaren 31koa, *emakumeari eta bake eta segurtasunari buruzkoa.*

S/RES/1856, 2008ko abenduaren 2koa.

EGILEENTZAKO ARAUAK

Jatorrizko lanak bidaltzea

Erredakzio Kontseiluak zehatz aztertuko ditu aldizkariak duen xedeari loturik bidaltzen dizkioten lan guztiak. Artikuluak argitaragabeak izango dira, beste hedabide batean argitaratu emateko inoiz aurkeztu gabeak.

Posta elektronikoko helbide honetara bidali beharko dira: hegoa@ehu.es. Posta elektronikoa bidez harremanetan jarriko gara artikulu sinatzen duen pertsona batekin (lehen egilearekin, berariaz bestelakorik adierazten ez bada), eta bidalitako lana hartu izanaren agiria igorriko diogu.

Aurkeztutako lanak ebaluatzea

Jasotako artikuluak ebaluatzen hasteko, behar bezala bete beharko dira *Hegoa Lan-koadernoaren* ediziorako arau guztiak. Ebaluazioaren bidez, kalitate gehien duten lanak hautatuko dira, aldizkariaren izaera dela-eta jatorrizko lanen kopuru mugatua baizik ezin baita argitaratu. Prozesu horretan, Erredakzio Kontseiluak hasierako aukeraketa egingo du, eta Argitalpen Kontseiluko kide aditu batek edo kontseilu horrek izendatutako lagun batek berrikusketa egingo du gero. Azken kasuan, kanpoko beste aditu batzuek egin ahal izango dute berrikusketa. Erredakzio Kontseiluak artikuluen egileei jakinaraziko die testua onartu ala baztertu den, eta, era berean, berrikusi behar ote den.

Argitaratzeko arauak

Egileei berariaz eskatzen zaie arreta handiz berrikusi ditzaten testua eta erabilitako terminologia, eta alde batera utz ditzaten formulazio nahasgarriak eta espezializatuak den jargoia ere bai. Horrez gain, sexista ez den hizkera erabiltzea gomendatzen dugu.

Testua 12 zenbakiko Arial letrarekin idatziko da, gehienez 50 orri izango ditu (DIN-A4 tamainakoak), eta orri bakoitzean 3.000 karaktere sartuko dira gehienez (espazioak ere barne hartuta), oharrak eta bibliografiako aipamenak aintzat hartu gabe. Oharrek ez dute 5 orri baino gehiago hartuko, eta aipamen bibliografiakoak, berriz, 7 orri. Oharrak orriaren oinaldean jarriko dira, eta zenbakituta joango dira, elkarren hurreneko zenbaki arabiarrekin. Testua *doc* (Microsoft Office Word) edo *odt* (OpenOffice Writer) formatuan aurkeztuko da.

Ez da ezer azpimarratuko, ez eta letra lodiz idatziko ere, izenburuetan izan ezik: izenburuak letra lodiz idatziko dira, 14 tamainan, eta 1., 1.1., 1.1.1., 2... eskemaren arabera zenbakituta. Testuko esaldi edo hitzen bat nabarmendu nahi izanez gero, letra etzanez idatziko da. Dezimalak idazteko, koma erabili beharko da beti.

Bidaltzen diren artikuluen lehenengo orrian, izenburuaren eta egilearen edo egileen aipamenaren ondoren, datu hauek azalduko dira: izena, abizenak, posta elektronikoa eta instituzioko datuak edo lantokia. Laburpen bat jasoko da, gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz; gehienez bost hitz gako hautatuko dira, artikuluen edukien

adierazgarri, eta horiek ere gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz jarriko dira.

Euskaraz edo ingelesez idatzita dauden testuei dagokienez, egileek bere aurkeztu beharko dute gaztelaniazko itzulpena.

Sartzen diren koadroak, irudiak, taulak eta mapak testuan ondo txertatu beharko dira, behar bezala ordenatuta, eta jatorrizko iturrien identifikazioa zehaztuta. Izenburu egokiak izango dituzte, edukiaren adierazgarri. Koloreak erabiliz gero, erabili gris eskala, eta bereizi lerroak sinbolo edo trazadura desberdinekin, aleak zuri-beltzean inprimatuko baitira. Hauek guztiak, gainera, *pdf*, *xls* (Microsoft Office Excel) edo *ods* (OpenOffice Calc) formatuetan bidali beharko dira bakoitza bere aldetik. Irudiekin batera, oinarritzko datuak dituzten fitxategiak bidaliko dira.

Egileak egokitzen jotzen duenean, formula matematikoen zenbakituko ditu, zenbaki arabiarrek erabiliz, kortxete artean jarrita formularen eskuinaldean. Formula matematikoen eta testuaren gainerako sinbolo guztiak, *pdf* formatuan bidali beharko dira.

Aipamen bibliografiakoak testuan sartuko dira, parentesi artean, eta egilearen abizena, eta, jarraian (koma baten ondoren) argitalpen-urtea (a, b, c, eta abar bereizita, elkarren hurreneko ordenan, zaharretik berrienera, egile beraren urte bereko lan bat baino gehiago aipatuz gero), eta, hala behar denean, orria adieraziko dira.

Adibidez:

(Keck eta Sikink, 1998)

(Keck eta Sikink, 1998; Dobbs *et al.*, 1973)

Oharra: *et al.* erabiliko da hiru egile edo gehiago direnean.

(Goodhand, 2006: 103)

(FAO, 2009a: 11; 2010b: 4)

(Watkins eta Von Braun, 2003: 8-17; Oxfam, 2004: 10)

Lanaren amaieran, zerrenda bibliografiako osoa jarriko da, egileen araberrako hurrenkera alfabetikoan, eta ondoko formak erabiliz, artikulua aldizkarian, liburuan edo liburu bateko kapituluaren atera den bereiziz. Hala behar denean, parentesi artean jarriko da lehen edizioaren edo jatorrizko bertsioren data.

Aldizkariako artikulua:

SCHIMDT, Vivien (2008): "La democracia en Europa", *Papeles*, 100, 87-108.

BUSH, Ray (2010): "Food Riots: Poverty, Power and Protest", *Journal of Agrarian Change*, 10(1), 119-129.

Liburua:

AGUILERA, Federico (2008): *La nueva economía del agua*, CIP-Ecosocial y Los libros de la catarata, Madril.

LARRAÑAGA, Mertxe eta Yolanda Jubeto (arg.) (2011): *La cooperación y el desarrollo*

humano local. Retos desde la equidad de género y la participación social, Hegoa, Bilbo.

Liburuko atala:

CHIAPPERO-MARTINETTI, Enrica (2003): "Unpaid work and household well-being", hemen: PICCHIO, Antonella (arg.): *Unpaid Work and the Economy*, Routledge, Londres, 122-156.

MINEAR, Larry (1999): "Learning the Lessons of Coordination", hemen: CAHILL, Kevin (arg.): *A Framework for Survival. Health, Human Rights and Humanitarian Assistance in Conflicts and Disasters*, Routledge, New York eta Londres, 298-316.

Webetik hartutako baliabideei dagokienez, behar diren datuak aipatuko dira, liburua, liburuko artikulua, aldizkaria edo egunkariko artikulua den kontuan hartuta. Argitalpen elektronikoa den data eta aipua hartu zen eguna jasoko dira, parentesi artean, bai eta helbide elektronikoa edo url-a ere, < > ikurren artean, "hemen dago eskuragarri" esaldiaren atzetik. Adibidez:

NDF (2007): "Declaración de una misión del personal técnico del FMI en Nicaragua", hemen: *Comunicado de Prensa*, 07/93 zk., 2007ko maiatzaren 11 (2007ko abuztuaren 8an kontsultatua), hemen dago eskuragarri: <<http://www.imf.org/external/np/sec/pr/2007/es/pr0793s.htm>>.

ELGA (2001), *The DAC Guidelines: Helping Prevent Violent Conflict*, Development Assistance Committee (DAC), Paris (2010eko irailaren 10ean kontsultatua), hemen dago eskuragarri: <<http://www.oecd.org/dataoecd/15/54/1886146.pdf>>

Sigla edo laburdura bat lehenengo aldiz erabiltzean, bere esanahi osoa adierazi beharko da eta, horren ondoren, parentesi artean, gero baliatuko den sigla edo laburdura jasoko da.

COPYRIGHT-AREN OHARRA

Hegoa Lan-koadernoak sailean argitaratzen diren artikuluko guztiak, Creative Commons lizentzia honekin argitaratuko dira:



Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 3.0 España

Orri honetan aurkituko dituzun agiriak Creative Commons lizentziekin babestuta daude.

Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Artikuluaren egileak edo egileek berariaz onartu beharko dute horrela.